



ARGIA

CAF-EN JERUSALEMGO TRANBIA

Ez da trena, apartheida da

24-29. orrialdeak



***"Ezin da dena
murtxikatua eman
eta etengabe pop
kanta bat egin"***

48 | MEJILLON TIGRE



Bizi Baratzea Orria 2. zk

Udako gaiak
+ Tomatearen posterra

ATEAK Euskarazko Heltzeren bertakortzeak banatzen ditu

Zer da?



LARRUN #308
Begoña Pedrosari
elkarriketa

EKAINAK
27-28-29

ARBERATZE
-ZILHEKOA

EHZ[★]

LURRAREN
HERRITMOA



Panorama

- 04 | ASTEKO ARGAZKIA
- 06 | AKTUALITATEA
- 07 | MATERIALISMO
HISTERIKOA
- 07 | EZ HANKA EZ BURU



AZALEKO ILUSTRAZIOA: SHU OTERO

Iritziak

- 19 | JESÚS RODRÍGUEZ
- 20 | KATIXA DOLHARE
- 21 | IDOIA RODRIGUEZ
- 21 | UXUE APAOLAZA
- 22 | MATI ITURRALDE

Finkoak

- 38 | GORPUTZ HOTSAK
- 40 | ARGIA KOMUNITATEA
- 41 | DENBORAREN MAKINA
- 40 | BIZI BARATZEA
- 46 | DENBORA-PASAK
- 47-52 | KULTUR-KRITIKAK
- 54 | EZETZ ASTEA ONDO BUKATU

SAILLEN GOIBURUETAKO ILUSTRAZIOAK: CLIPART COURTESY FCIT



12 | ITSAS HONDOA KOMERTZIALKI USTIATZEN HASTEKO ARRISKUAN

Jenofa Berhokoirgoinek ondutako Net Hurbil atalean azaldu du nola Nizan (Frantzia) bilkura egin berri duten Ozeanoei buruzko Nazio Batuen konferentzia. Bertan 2.000 zientzialarik eskatu dute itsaspean dauden metal eta mineralen erauzketa debekatzea. Izan ere, klima larrialdia areagotu baino ez luke egingo horrek. Ordea, multinazional handiak eta "energia trantsizio" deituak metal horien gose dira...

Elkarrizketak eta erreportajeak

14 | PERTSONAIA | OIHER URRUTIA Erabiltzen gaituzte herriok folklorismorako: landa, animaliak edo euskalkia bera

Amets Aranguren

24 | NAZIOARTEA | ISRAELEN OKUPAZIOA Apartheid isil baten historia

Maria Ortega

30 | GIZARTEA | UMANDI IKASTOLAK 50 URTE Euskara, bizikidetzeta eta berrikuntza pedagogikoa ardatz

Miel A. Elustondo

34 | NAZIOARTEA | TERESA ZAVALETA

"Euskararen bidez Euskal Herriko egoera politikoa ulertu nuen"

Garazi Basterretxea

48 | KULTURA | MEJILLON TIGRE

"Ezin dugu prekaritateaz hitz egin metafora ulertezinekin"

Larraitx Fagundez

Jabetza

Komunikazio Biziagoa
S.A.L. Ametzagaña Taldeko partaidea

Erredakzioa

Axier Lopez, Eneko Imaz, Eneritz Arzallus,
Estitxu Eizaguirre, Gorka Peñagarikano,
Jenofa Berhokoirgoiñ, Jon Torner,
Lander Arbelaiz, Leire Artola,
Manex Moreno, Maria Ortega, Mikel Garcia,
Onintza Irureta, Unai Lomana,
Urko Apaolaza, Xabier Letona, Zigor Oleaga

Diseinua

Maitane Gartzandia

Argazkilaria

Dani Blanco

Produktzioa eta inprimaketa

Antza S.A.L.

Administrazioa

Jone Arzallus, Mari Karmen Loiarde

Salmenta

Karlos Olasolo, Pello Basurto

Banaketa

Olatz Korta

Azoka

Mikel Olabide

Idazkaritza

Ane Gaztelumendi, Aloña Sorraluze,
Bego Zuza

Web garapena

Asier Iturralde

Informatika

Iametzta interaktiboa, S.L.

Lege gordailua: SS 837-2012

ISSN: 0213-909X

Batzarde parekidea: 72562 E

GUREKIN HARREMANETAN JARTZEKO

Posta elektronikoak

komertzial@argia.eus

komunitatea@argia.eus

Telefonia

943371545

Gipuzkoa

Industrialdea, 15. 20160 Lasarte-Oria

Nafarroa

Gazteluko Plaza 44, 3. eskuina,

31001 Iruñea

Ametzagaña taldeko kidea da ARGIA
honako enprekin batera:


Doan eta libre

ARGIAko edukiak kopiatu, moldatu,
zabaltu eta argitaratu ditzakezu, gure egiletza
aitortu eta baldintza beretan eginez gero.

Lizentzia hau baliagarria da testuentzat
eta, argazkien eta ilustrazioen kasuan,
ARGIAren sinadura daramatenentzat soilik.

ARGIA HIZKUNTZA POLITIKARAKO
SAILBURUORDEZAK DIRUZ LAGUNTZEN DU:

**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

**Gobierno
de Navarra**

**Nafarroako
Gobernua**

Aldizkari honek ekoedizioaren
baldintzak betetzen ditu.

Aztarna ekologikoa:



bDAP202506489


OLATUKOOP

Ekonomia sozial eraldatzailearen
sareko kide gara.



"No nazis, no kings"

Ehunka mila lagun kalera atera dira AEBetako 1.800 herri baino gehiagotan eta Mexikoko hainbat hiritan, Trumpen autoritarismoaren, baliabide publikoen xahutzearen, migratzaileen sarekaden eta deportazioen, murrizketa publikoen... aurka. "Mugarik gabeko gobernu da, monarkien antzera". Bitartean, "erregeak" 100 milioiko desfile militarra oparitu dio bere buruari bere 79. eta armadaren 250. urtebetetzeengatik. Herrialdeko beste mutur batean, muturreko kristau ebanjeliko batek, polizia mozorrotuta, oposizioko bi biltzarkide hil ditu tiroz. Asteburu arrunt bat neofaxismoaren epizentroan (Israelen baimenarekin).

 KALIFORNIAKO SAN FRANTZISKON / T. COSKUN - GETTY IMAGES

 AXIER LOPEZ



“Gu atxilotzen ari dira martxarekin fokua Palestinan jartzen ari zelako”

 ZIGOR OLABARRIA OLEAGA / JENOFA BERTHOKOIRIGOIN

Ekainaren 12an, munduko bazter guztietatik –baita Euskal Herriatik ere– heldutako milaka pertsonak Egiptoko El Arish hirian batzea eta hortik Rafah-raino abiatzea zuten asmoa, Gazaren aldeko martxa globalean. Israel palestinar herriaren aurka egiten ari den genozidioa salatzea dute helburu, baita korridore humanitario bat ireki dadin exijitzea ere.

Oztopak eta trabak, baina hasieratik jarri dizkiete, eta hainbat aktibistaren atxilotetak eta deportazioak egin ditu Egiptok. Ekainaren 12an bertan elkarritzketatu zuen ARGIAk Pili Revilla gas-teiztarra. Revilla ekainaren 11 gaueko 22:00etan heldu zen Kairoko aireportura hegaldian, martxako beste hainbat parte-hartzaileekin batera. Kontrola pasa zuen kide batekin, eta beste batzuen zain geratu ziren. “Baina itxaron eta itxaron, eta ez ziren agertzen, Polizia gu identifikatzen hasi zen eta ohartu ginen zer edo zer txarra gertatzen ari zela. 01:00a arte egon ginen esperoan eta orduan hotelera alde egin genuen”. Hotelera heltzean, lehenik abokatuekin jarri ziren harremanetan euskal militanteak, eta ondoren aurreko egunetan helduak ziren beste bi euskal herritarren gelara joan ziren. Baina Polizia topatu zuten bertan.

“Haietako batekin hitz egin ahal izan genuen, saiatu ziren bertan eusten, beharrezko paper eta baimen guztiak dituztela aldarrikatuta, baina azkenean aireportura eramanez dituzte”. Egoera nahasia da eta Polizia asko dute inguruan, “edozein momentutan atxilotu gaitzakete”, adierazi zion Revillak Kairoko hotel batetik ARGIAri.

Solasaldiaren unean (goizeko 10:00ak Euskal Herrian), dozenaka militante zituzten aireportuko gela batean atxilotuta, horien artean bost euskal herritar: Begoña Oleaga, Agus Gorbea, Gurutze Morado, Reem Dandan eta Eider Aierdi. “Hainbat herrialdetako 70 pertsona baino gehiago gaude atxilo Kairoko aireportuko kalabozoan”, idatzi zuen martxako kide batek goizean, sare sozialetan. Euskal He-



IZQUIERDA DIARIO

rritik 30 pertsona inguru joan dira Egiptora nazioarteko martxan parte hartzeko, mundu osoko 82 estatutatik 4.000 inguru.

Aireportuko kalabozoetan dagoen euskal herritarretako batekin labur hitz egitea lortu zuten antolakuntzako Euskal Herriko kideek. Salatu dutenez, hasiera batean tratua txarra izan zen, ez zieten urik eman edo zutik egotera behartu zituzten, eta pasaporteak kendu zieten. Atxilotu batzuen aurkako “jipoi handiak” ere ikusi zituzten. Egiptoko Gobernuak bueltako hegazkin txartela erosteko esan zien martxako kideei, eta mehatxu egin zien egin ezean aireportuan bertan emango zituztela bueltatu arteko egun guztiak –martxa amaitu osterako zituzten erosita txartelak, gutxienez ekainaren 16tik aurrera–. Abokatu talde bat aritu zen ekintzaileak babesten.

“Gu zatitzen eta atxilotzen ari dira martxa ekiditeko”, dio Revillak. Azken egunotan martxak ikusgarritasuna lortu duela iritziz dio. “Martxak aldarrikatzen ditu blokeoaren amaiera, Israelekin harremanak etetea eta genozidioarekin amaitzea, arreta gehiegi ari ginen lortzen, eta hori moztu nahi dute”.

Ehunka izan dira deportatuak ere, tartean euskal herritar bat: Agus Gorbea. Elkarriketa egin zion Maria Ortega

kazetariak ARGIArekin: “Martxak ezin badu aurrera egin, beste alternatiba batzuk jarriko dituzte martxan; zerbait egingo dute ziur”.

TUNISIATIK AUTO-KARABANA

Ekainaren 9an, Martxa beraren beste adar bat abiatu zen Tunisiako hiriburutik: *Al Soumoud* auto-karabana. Parte-hartzaile gehienak tunisiarrak eta aljeriarrak dira, eta Aljeria, Maroko, Libia eta Mauritaniatik etorritako militanteak ere biltzen ditu ekimenak. Funtsean, koalizio transmagrebtar hori osatu izanak dakarren indarra azpimarratzen dabilta antolatzaileak.

Libiara sartzeko muga arazorik gabe igaro zuten, baina Libia eta Egiptoren arteko mugaz aitzinatuta ahala, Israelek eta Egiptok Libiari bideratu presioak areagotu egin ziren eta Libiako Sirte hirian geldiarazi zuten auto-karabana luzea. Alta, berez, Libiako Estatu Kontseiluaren babesa jaso du auto-karabanak, “Palestinako kausarekiko elkertasun arabiar eta islamikoaren ikur bizitzat” daukalako. Bestalde, Abdelhamid Dbeibah Batasun Nazionalako gobernuburuak ere bere “harrotasuna” adierazi zuen ekainaren 11n, herritarrek erakutsitako elkertasun ekimena txalotuz. ●

MELOI SALTZAILEA

Harro



JUNE FERNANDEZ

LAGUN marika batek deitu dit galdetzeko nola salatu dezakeen hurrengoa: joan zen Akarlandara, EHU-ren parean dagoen parkera, eta komun publikoetan bi tiporekin zegoela, udaltzainen bizpahiru kotxe agertu ziren super azkar, poliziak sartu ziren komu-nera borrekin hormak kolpatzen, haiek beldurtzeko. "Stonewall dugu gure iruditeria kolektiboan, baina gaur gaurkoz, justuki *cruising*-arekin lotuta baina beste zenbait egoeratan ere, poliziak paper garrantzitsua dauka errepresiboki".

Ibai Fresnedo Ehgameko militantearen hitzak dira, sexualitatearen adierazpenei buruz egin dudan ikerketaren testuinguruan esandakoak. Gogora ekarri ditut ikusi dudanean Ertzaintza dela Bilbao Bizkaia Harro egitasmoaren babesletariko bat.

Komeni da gogoratzea zer omentzen dugun ekainaren 28an, hots, 1969an New Yorkeko Stonewall tabernan Poliziaren jazarpenari aurre egin zioten maritxu, trabesti, bollera eta biziotsuen adorea. New Yorkez ari gara, badirudielako AEBak direla nazioarteko mugimendu sozial guztien epizentroa, baina gurean ere ezinbestekoa dugu aintzat hartzea kuir ez-tanden izaera antiautoritarioa. Zehazki, Francis Vadiño artista trabestiaren erailetak suspertu zuen 1979an gure borroka transmariboltoa. Asmatu nork akabatu zuen Francis. Bingo! Polizia Nazional batek, taberna batean. Francisen omenez, ekainaren 10a Euskal Herriko Trans Memoriaren Eguna izendatu dute.

Hortaz, Polizia Harrotasunarekin lotzea irain handia da memoria historikoaren ikuspegitik, baina baita oinarrizko logika batetik ere: kuirrok sistemaren ordena iraultzen dugu eta Poliziaren papera da, hain zuzen ere, sistema horrekiko obedientzia inposatzea. Promiskuitate marika da horren adibide argi bat: sarekadak ohikoak izan dira historikoki *cruising* guneeetan eta saunetan, beti ere ordena sozialaren, zibismoaren edota osasun publikoaren izenean. Alabaina, politika horien atzean dagoena da jendarte heteropatriarkal judu-kristauaren eredu sexual puritano eta hipokrita jagotea.

Are gehiago, kuirra izatea gure sexualitateaz eta identitateaz harago doan jarrera kontrahegemonikoa da. Ondorioz, kuirra izatea bada antisionista izatea, gure borroka instrumentalizatzen duen estatu genozi-dari aurre egitea eta, horretarako, besteak beste, Poliziaren jazarpenari aurre egitea dakarren protestetan parte hartzea. Ez duzue Palestinaren aldeko keinurik topatuko Bilbao Bizkaia Harroren egitarauan, bai ordea E28 Koordinadoraren urte osoko jardunean. ●

EZ HANKA EZ BURU

ADUR LARREA

www.adurlarrea.com



Bortitza



ULA IRURETAGOIENA

Bortizkeria zuzenak, agerikoak eta isilak, gainjarriak eta zeharkagarriak, mikroak eta geldoak. Bortizkeria egunerokoan irristatzen da, uneoro, boterea edo erabakitzeo ahalmena duenak ez duenaren aurrean boterea erabiltzen duenean. Hainbeste egoeratan murgiltzen gara bortizkerietan, horietako egoera asko ohitura bilakatzen ditugula, zer den bortitza zalantzan jartzera iristen garen arte. Bortizkeria noiz pairatzen ari garen identifikatzea gakoa da, eta zorionez geroz eta tresna gehiago ditugu bortitza zer den ohartarazteko. Bortizkeria egiturazkoa den kasuetan, egoera bortitzak sortzen duen mina edo bidegabekeria baino latzagoa da bortizkeria legitimotzat jotzen duen egitura eta pentsamoldea.

Espazioak eragiten dituen bortizkeria egoerak, ohituran eta "naturaltasunean" txertaturik egoterakoan, barnerratu egiten ditugu eta identifikazioa zaila da; babesten duen pentsamoldeak aise hedatzeko aukera du eta salaketarako esparrua txikia da. Bortitza da antropometria normalizatu batek argudiatzea eta diseinatzea espazioa. Bortitza, tutoretzapeko etxe batean sukaldeko goiko apalean edalontzia uztea erraza ez denean. Bortitza da gizonezko komun publikoek erreproduzitzen duten gizon-tasun eredu. Bortitza da errenta baxuko auzoen garbiketa eta garraio publikoko zerbitzuak eskasak direnean. Bortitza da oinarritzko zerbitzuetako zuzkidura eraikinetara iristeko erraztasuna auto pribatuei eskaintzen zaienean. Bortitza, diru publikoa ekoizpen espazioak hobetza dedikatzen denean eta inproduktiboak diren espazioek lekuri eta dirurik ez dutenean. Bortitza da kartzeletako arkitekturak presoen pertzepzio espazial mugatua sortzen duenean. Bortitza, kale eta hirien plangintza kontrol eta ordena zuzenduta dagoenean. Bortitza da gure lurraldea ekonomia nagusien probetxurako salmentan jartzen denean.

Egiturazko bortizkerien aurrean, gorputzaren burujabetza kolektiboa kome-ni, Bilgune Feministaren urteroko hausnarketak guneak aldarrikatzen duen lez. ●



Kanarietara bidaiatzeko oharrak

GORKA PEÑAGARIKANO GOIKOETXEA

Mingainari kosk txikia eginda joan ginen oporretan Kanarietako Lanzarote irlara. Maiatzaren erdian, turista asko-askorik topatuko ez genuela jakinda, prezio guztiak ere merkeago, eta hara eta hona mugitzeko lasaitasun gehiago. Espero bezalaxe izan zen. "Esperientzia" ona.

Noan tokira noala gogoko dut tokiko prentsa irakurtzea. Entzuna nuen manifestazio bat egitekotan zirela irla guztietan, masifikazioaren aurka eta desazkunde turistikoaren alde, eta banekien antolatzaileetako bat Bartzelonan egona zela aste gutxi lehenago, Bilboko, Donostiako eta Europa hegoaldeko hirietako mugimenduekin-eta batera, turistifikazioaren inguruko gogoetak kolektibizatzen. Lanzarotetik erredakziora heldutakoan irakurriko nituen han egindako hitzak.

La Voz de Lanzarote hedabide digitala egunero kontsultatu nuen han ginela. Arreta piztu zidaten hainbat albistek: "[Lanzaroteko hiriburua den] Arrecife gurutzatzearen bi portu inauguratu ditu, eta bidaiari kopurua ia bikoiztea espero du". Iaz, gurutzatzearen soilik 600.000 turista jaso bazituen, datorren urtetik aurrera milioitik gora. Baina itxoin. Horra beste titular jostari bat: "Peru herrialdeak bezainbeste turista jasotzen ditu Lanzarotek". Hau da, 3,4 milioi turista urtean. Lanzarotek 166.000 biztanle ditu; Peruk, aldiz, 34,2 milioi.

Ez da dudarik Lanzaroteko biztanleen gehiengoa turismotik eta ingurumartik bizi dela. Eta asko, besteen kontura. Prekaritatea handia da sektorean, baita Kanarietan ere: iazko datuen arabera, biztanleen %36 bazterketa sozial edo pobrezia egoeran dago. Eta, horrelako zifra altua izanda, maiz salatzen dute gizarte zerbitzuetako langile gutxiegi dituztela, azken hamarkadan egoera hobetu bada ere.

Prekaritatearen adibide nabarmenetako bat da klase posizioak nola baldintzatzen duen ur eskasia. Ezaguna da ur falta handia dagoela, eta, gobernuak asfaltatutik aholkatuta, etxe guztietan daude ur bidoiak, zeren aldi-aldiaren mozten da ura hainbat orduz edota egunez, herri hartan, honetan edo bestean, aurreikuspenik gabe. Baina itsasoaren pare-parean dauden bost izarreko hoteletan ez da zurrusta eteten, ur gezarekin betetako hamaika igerileku eta beste hainbeste jacuzzi baldin badituzte ere. Haiek badituzte haien sistemak. Hotel horretan lanean egon denak, baina, etxera joandakoan ez du urik izanen. Maiz gertatzen da.

"Ez gaude turistekin kontra". Makina bat bider errepikatu zuten manifestariak bai Lanzaroten eta bai Kanarietan, baina berdin zaio hori prentsa britainiarrari: *Daily Mail*-entzat "anti-turistak" dira, eta, artikulu batean seinatu zuen moduan, "ez bagaituzte nahi, Greziako irlara itzuliko gara". Nolabait ere esanez, paternalismo hutsez, "ea zer egiten duzuen gure dirurik gabe".

Ez diote arretarik ipini nahi manifestarien esaldi segidari: "Ez gaude turistekin kontra, baina bizilagunon oinarritzko beharrak eta bizi-baldintzak erdigunean jartzen dituen aldaketa sakona behar dugu". Turismoa bai, baina honela ez. ●

826

sinadura aurkeztu ditu irakasle talde batek, Lanbide Heziketa Dualaren "gezurra" salatu eta egoera aldatzeko eskatuz. Espainiako Lanbide Heziketaren legeak egoera larria ekarri duela iritzita, kezka nagusiekin manifestua idatzi dute.

50

eragile inguruk bat egin dute Donostiako Bizilagunekin plataformak deituriko mobilizazioarekin. Desazkunde turistikoak aldarrikatu dute hamarnaka herritarrek, "bertan bizi ahal izateko".

68

preso dira, gutxienez, 2022tik hona EAEko espetxeetan uhalekin edo eskuburdinekin loturik izan dituzten presoak. Urte horretan eskuratu zuen Eusko Jaurlaritzak Zaballa, Basauri eta Martuteneko kartzelen gaineko eskumena, eta datu horiek eman ditu.

"2027an biltzarra egingo dugu euskararen biziberritzean jauzi kualitatibo bat egiteko"

IMANOL PRADALES

Eusko Jaurlaritzako lehendakaria

2025-06-09



"MENDIALDEKO HERRIAK HILTZEN ARI GARA, ETA HORI GIZARTE OSOAREN KALTERAKO DA"

Jando Iriart Larraineko auzapeza eta Jone Alastuei Uztarrozekoa, Pirinioetako herrien egoeraz.

EUSKAL IRRATIAK (2025-06-10)

"Ez badakigu nola demostratu euskara ikasteak dituen onurak, arazo bat daukagu"

BELEN URANGA

Soziolinguistika Klusterreko ikertzailea.

BERRIA (2025-06-15)



TEKNOLOGIA

“Bestea”



DIANA FRANCO EGUREN

Bestea”-k gogaituta du gizate-
ria, duena kenduko dio, duena
eraldatuko du, kutsatuko du...
“Bestea”-k definitzen gaitu... baina
“bestea” denok izan gaitezke.

Egun, nor da “bestea”? Nork seina-
latzen du izan behar ez dena?

Zapalduen seme-alabek ongizatea
zer den dastatu dute. Baina bizimodu
horren eraikuntzan zelan parte har-
tu ez diete erakutsi nahi izan. Askok
baliabide izan dira soilik, eragileen
arauak jarraitzeko heziak. Eta euren
bizitzetara ongizatea etorri den beza-
la, joan daitekeen beldurrez bizi dira.

Orain dela zenbait urte, langileon
eta kapitalaren arteko elkarren beha-
rrak boterearen banaketa zekarren,
tirabira horretan eragiteko langileon
ahotsa entzuten zen. Oraindik zen-
bait esparrutan, hala nola hezkuntza
publikoan, entzuten jarraitzen dela
ikusten dugu. Baina orokorrean, lan-
gile klasearen boterea ahultzen joan
da. Eta horrekin aberastasuna bana-
tzeko bideetariko bat.

Aberastasuna gero eta esku gu-
txiagotan dagoen munduan, “bes-
teak” gehiengo izatera helduko gara.
Zer erreakzio eragingo du gutxiengo
boteretsuan gehiengo behartsuaren
mehatxuak? Berrantolatzeke astirik
izango ote dugu? Zenbait pentsala-
rik modu espekulatiboan horren in-
guruan idatzi du (adibidez, irakurri
berri dudana *Lau etorkizun* liburuko
Peter Fraser-ek), eta gizartea anto-
latzeko gerta daitezkeen modu ez-
berdinen artean, “bestearen” sarras-
kitzailea izango den etorkizuna ere
sortu daitekeela irudikatu du. Gaur
egun, munduko gatazketan ikusten
gabiltzana ikusita, Israel Palestina-
ko herriarekin egiten ari dena, edota
Amerikako Estatu Batuak klase mi-
gratzaileekin egiten ari dena, etorki-
zun espekulatibo hori gauzatzen ari
dela dirudi. ●

Debako liburutegian haurrek jasaten zuten diskriminazioa ezabatu dute

MIKEL GARCIA IDIAKEZ

6urtez azpiko haurrek egunean or-
dubetez baino ezin zuten egon De-
bako liburutegian, eta egoera hori
aldatzeko borrokan aritu da herriko
ama talde bat. Udal gobernuak jarrera
aldatu eta onartu du herritar guztiek,
duten adina dutela, nahi dutenean egon
ahal izatea liburutegian. “Kostatu da,
baina herriak irabazi du”, adierazi diote
ARGIAri Liburutegia Denontzat taldeak.

Ekainaren 16tik aurrera, haurrek hel-
duen gisan erabili dezakete liburutegia
(liburutegiak berak haurrentzat propio
duen espazioan, haur eta gazte liburu-
tegia): alegia, zabalik dagoen edozein
unetan egon daitezke (6 urtez azpikoek
liburutegian ordubete egoteko aukera
baino ez zuten egunean, eta 15 urtera
arte ordu murrizketak zituzten). 0-2 ur-
teko umeek ezin zuten egon orain arte
liburutegian, ezin zuten liburutegiko
txartela atera, hori ere aldatu da: per-
tsona guztiek eskatu ahal izango dute
liburutegiko txartela.

Alazne Txurruka Debako alkateak
honela arrazoitu du: “Kasu honek era-
gin dituen diskriminazio zantzuen aur-
rean, gure lehentasun nagusia izan da
diskriminazio hori ezabatzea”. Hain ju-
tu, ARGIAk Irati Aizpurua abokatuari

egindako elkarrizketan abokatuak na-
barmendu zuen hurrenganako “diskri-
minazio egoera baten zantzu nahikoak”
erakusten zituela Debako liburutegiko
jardunak.

ARGIAk jarraipena egin dio gai honi
eta haurrek orain arte jasan duten dis-
kriminazio horien nondik norakoak
sakon jorratu genituen Liburutegia
Denontzat ama taldeari egindako elka-
rrizketan (2.912 zenbakian). Udal go-
bernutik egoera justifikatu zuten libu-
rutegian espazio falta argudiatuz. Orain,
ordea, bestelakoa da jarrera: Liburu-
tegia Denontzat taldeak planteaturiko
kezkei “irtenbiderik onena emateko”
lana “etengabe” egin duela dio udal go-
bernuak, jarrera irekia izan duela uneo-
ro, eta haurren ordutegia zabaltzea era-
baki du.

Hala, hogeitaz baina gehiagor luza-
tu den diskriminazioa amaitu da. “Kos-
tatu da –adierazi dio ARGIAri Itsaso Ara-
mendi Liburutegia Denontzat taldeko
kideak–, guk bi urte inguruko borroka
daramagu horretan, baina herriak ira-
bazi du. Hemendik aurrera ez da diskri-
minaziorik egongo, denok izango ditugu
liburutegia erabiltzeko eskubide berak,
eta pozgarria da”. ●



LIBURUTEGIA DENONTZAT

Osakidetzak gazteleraz eskaintzen dizkie saioak

Gasteizko D ereduko haurrei

 ZIGOR OLABARRÍA OLEAGA

Hainbat urtetan jarduera hezitzaileak gazteleraz jaso ostean, bi urte direla Zabalgana ikastetxeak euskarara hutsean ematea eskatu zion auzoko osasun zentroari. Osasun zentroko arduradunek diote ez dutela horretarako baliabiderik. Osakidetzak egoera ikasturte honetan konpontzeko konpromisoa hartu du birritan, baina ez du agindutakoa bete. Horren aurrean, Zabalgana eta Aldaialde ikastetxeek planto egin diete saioei. Zabalgana ikastetxeko zuzendari Itziar Badiola Maguregik azaldu dizkio ARGIAri egoeraren nondik norakoak.

Urteak dira Zabalganako osasun zentroak saio hezitzaileak eskaintzen dizkiela auzoko ikastetxeei. Lau dira jarduerak, Badiolak azaldu duenez. Batetik, Haur Hezkuntzako 4 urteko haurrentzako antzerkia osasun ohituren inguruan: "Euskaraz jasotzen dute haurrek". Bestetik, Lehen Hezkuntzako 3. mailako haurrentzako (8-9 urte) Ume Sorosleak jarduera; "Erizainak azalpenak gazteleraz ematen ditu, umeek euskaraz galdetzen dute eta erantzunak batzuetan euskaraz bestetan gazteleraz jasotzen dituzte". Hirugarrenik, 5. eta 6. mailako haurrentzako (10-11 urte) ibilbidea osasun zentroan; "profesional batzuek euskaraz egiten diete, eta beste batzuek gazteleraz". Azkenik, 6. mailako hau-

rrerentzako (11-12 urte) hitzaldia ikasturte amaieran, alkoholaren ingurukoa; "dena gazteleraz". Lau jardueretatik bakarra euskarara hutsean, hortaz.

Orain bi urte eskatu zuen lehenbizikoz Zabalganako ikastetxeak jarduera guztiak euskaraz ematea, 2022-2023 ikasturtearen hondarrean. "Esan genien zerbitzua asko eskertzen diegula, baina D ereduko ikastetxea garela. Esan ziguten dituzten baliabideekin ez zela posible, langile gutxi dakitela euskaraz, edo jakinik ere ez direla gai ikusten hitzaldi luzeak euskaraz emateko".

2023-2024 ikasturtean, eskola kontseilura eraman zuen gaia familia batek. "Gurasoek esan zuten ezin genuela hori onartu". Hiru kexa aurkeztea adostu zuten kontseiluan: Hizkuntz Eskubideen Behatokia, Elebide Hizkuntza Eskubideak Bermatzeko Zerbitzuan, eta Osakidetzan. Baina pentsatu zuten kexak aurkezteak ikastetxearen eta osasun zentroaren arteko harremana kaltetu zezakeela, eta hori zaindu nahian azken saiakera bat egitea erabaki zuten. Badiolak berak deitu zien osasun zentroko arduradunei. "Azaldu nien kontseiluan kexak aurkeztea erabaki zela eta zerbitzua euskaraz ez ematekotan uko egingo geniola, baina aurretik aukera zabaldu nahi genuela berriz ere, egoera konpon-

tzeko. Berdina erantzun ziguten, ezin zutela euskara bermatu".

Ikastetxeak aurkeztu zituen kexak, eta zuzendaria Osakidetzako euskararen normalkuntzarako teknikariarekin harremanetan jarri zen. "Teknikariak arduratu hartu zuen, bisitan etorri zen, esan zigun ez zela onargarria, eta Osakidetzako arduradunekin bildu zela egoera azaltzeko". Denbora batera, teknikariaren deia jaso zuten, antza arazoa konponbidean zegoen. "Esan zidan, 'lasai Itziar, lortuko dugu, arduradunek diote posible izango dela, bertako osasun zentroko langileekin ez bada beste modu batera'". 2024-2025 ikasturterako jarduerak euskaraz emateko konpromisoa hartu zuen Osakidetzak. Baina zaharrak berri, osasun zentroan berriz adierazi diete 4 urteko haurrentzako antzerkia soilik eskaini dezaketela euskaraz.

Ikastetxeak planto egin die, hortaz, Osakidetzaren saio hezitzaileei. Aurrean euskarazko antzerkia soilik jaso dute, lau jardueretatik bakarra. "Bederatzi talde gelditu dira formaziorik jaso gabe, 223 haur", salatu du Badiolak. "Gehien penatzen nauena da osasun zentroarekin beti izan dugula esker ona, haiek ere ahalegina egiten dute, baina ez dakit zer gertatzen den goian euskara ez bermatzeko, irtenbiderik ez bilatzeko". ●

MOTZEAN

BSH enpresak berretsi du Ezkirotzeko lantokia itxiko duela; 655 langile kaleratuko ditu. Nafarroako Gobernua eta langileak "denbora" eskatzen aritu dira, "berrindustrializatzeko". Protestak egin dituzte beharginak.

Iruñeko Alde Zaharrean emakume bat etxegabetu dute. Aurreko astean, etxegabetze hori bertan behera utzi zuen Poliziak, hura galaraztera bertaratu baitziren ehun bat herritar. Bigarren saiakeran, baina, ez zuten antolatze astirik izan.

92 urteko gizon batek kalte-ordainak ordainduko dizkio bere zaintzaileari, sexu erasoak egiteagatik. Beste gizon batek aitortu du bost urtez bikotekideari sexu abusuak egin zizkiola: honek ere ez du kartzelan sartu beharko.

Bertsularien Lagunak elkartearen sortzaileetan izandako Mixel Itzaina zendu da, 92 urte zituela. Epaila, gai-jartzaile eta saio antolaketetan aritu zen. Euskaltzain urgazle izendatua izan zen 1967an, eta ohorezko 2014an.

ITSAS HONDOEN USTIAPENA: ZIENTZIALARIAK ALARMA JOTZEN, BAINA MORATORIARIK EZ ZERUMUGAN

60 bat estatu eta gobernu buru elkartu dira Nizan (Frantziako Estatua) Ozeanoei buruzko Nazio Batuen Konferentziaren kari. Donald Trumpek itsas hondoen esplorazio eta erauzketa komertziala baimendu eta TMC enpresa kanadarrarekin tratua bideratu berri duen honetan –baita nazioarteko uretan ere–, bazen itsas-hondoetako mineral eta

metalen erauzketarena arrangurak pizteko gaia. Maleruski, munduko 37 estatu dira moratoriaren alde agertu: sobera guti klima aldaketa aztoratu eta jasanezina bihurtuko lukeen aktibitate hori geldiarazteko. Beste behin, ingurumenaren aldeko hitz ederrak entzun dira, baina ekintzetan gauzatzeko determinazio guti.

JENOFA BERHOKOIRIGOIN

Espreski elkartu dira Nicen (Frantziako Estatua) ekainaren 3tik 6ra, ozeanoetan adituak diren nazioarteko 2.000 zientzialari, hain justu, Nazio Batuen Erakundeak ozeanoei buruzko bere konferentzia hiri horretan zuelako bideratzekoa 9tik 13ra. Hamar neurri dakazkien manifestu bat izenpetu eta helarazi diete konferentzian egondako estatu eta gobernu buruei. Argiki diote: "Jardun behar da, jardun behar da orain eta zientzian oinarrituta. (...) Bukatu da diskurtsoen eta ezbaiei garaia".

Gomendioen artean, ondoko hau: itsaspean dauden metal eta mineralen erauzketa debekatzea. Erdibiderik ez: debekatu eta puntu. Zergatik? Ekosistemak, kliman eta beraz bizian atzerabuelarik gabeko eraginak izanen lituzkeelako itsas hondo sakona ustiatzeak.

2023ko otsailean ekarri genuen orri horietara gaia *Mehatzua itsas hondo sakonean: mineralen eta metalen erauzketa ate joka dugu* erreportajearekin. Enpresa estraktibistak 200 metrotik 10.000 metrora arteko hondo horiei begira jarriak direla genion, eta lobbygingintzan zebiltzala. Erauzketa horrek kliman eragin atzeraezina luke: zientzialariek diote berotegi efektua dakarten gasen

%38 xurgatzen duela itsas hondoak, baita isurketa horiek eragindako berotasunaren %93 ere. Zer gertatuko litzateke karbono dioxido horren askatzearekin? "Karbono-bonbatzat" daukate erauzketa hori, eta nola ez, klima larrialdia pairaezina bihurtzeraino gaiztotu besterik ez luke eginen.

Horrez gain, debekua edo behintzat moratoria galdetzen dabilta, eremu erabat ezezaguna zaigulako. Anne-Sophie Roux ekologistaren ideiak ekarri genituen gureru: "Itsas hondoak baino hobeki ezagutzen dugu ilargiaren azala". Ezezagunak zaizkigu bertan bakean diren espezieak eta zientifikoek diote gure ekosistemako espezieen %80 deskubritu gabea daukagula... Eta, ez ditugu ezagutzen bertako dinamika biologikoak zein bertako ekosistemek perturbazioen parean duten erresilientzia heina.

Zientifikoek manifestuko urgentziaren tonua ez da gehiegizkoa: kosta ahala kosta diru gosea asetzeko logikan diren enpresa estraktibistak badabiltzalako aitzina, nazioartearen iritziaz eta legeziaz bost axola duen Donald Trumpek bidea irekita. Maiatzean izenpetu zuen itsas hondoen erauzketa baimentzen zuen dekretua AEBetako presidentek


eta TMC The Metals Compagny multinazional kanadarrari bideratu dio kontratua, AEBn jabegoan diren urentzat, baita nazioarteko urentzat ere.

Berez ez direnez estatu baten autoritatearen menpe, "munduko ondasun publiko" gisa kontsideratuak dira nazioarteko urak –planetaren eremuaren erdia baino gehiago ordezkatzeko dute, eta ozeanoen %64–. Hori horrela, berez inorena eta guztiena den eremu zabal horretaz arduratzeko osatu zuten IHNA Itsas Hondoen Nazioarteko Autoritatea 1994an, eta itsas hondoen esplorazioa eta ustiaketa ditu solasgai nagusien artean.

Esplorazio baimen bakar batzuk bideraturik ditu, baina ez dira inolaz ere ustiaketa komertzialerako. Gaur egungo eztabaida sutuena dute ustiapen komertzialarena. Pseudo trantsizio berderako tresnerientzat ezinbestekoak izanik metal eta mineral horiek, itsas hondoak ustiatzeko gose handia dute zenbait estatuk eta multinazionalak. Baina uzkur dabilta IHNAko kideak, eta laster ulertzen da zientifikoek "bukatu da diskurtsoen eta ezbaiei garaia". Are gehiago, ikusten denean Trump eta TMC bezalakoak inolako lotsarik gabe prest direla NBEn gainetik pasatzeko.

KARBONO-BONBA

Berotegi efektua dakarten gasen %38 xurgatzen du itsas hondoa, baita isurketa horiek eragindako berotasunaren %93 ere. Eremu hori ustiatzek "karbono-bonba" bat eraginen luke, klima aldaketan ondorio atzeraezinak ondorioztatuta.



ERDIBIDERIK EZ DA ITSAS HONDOARENTZAKO

Horregatik erdibiderik gabekoa da zientzialarien deia: ustiapenaren debekua. Moratoriaren alde agertu dira IHNAko 169 kideetatik 37 eta Europako Batzarreko presidente António Costak ere babesa erakutsi dio arduraren izenean hartu beharreko geldialdiari. Baina ez da nahikoa, IHNAk moratoriaren alde egiteko.

Bizkitartean, Nazioarteko Itsasoa Babesteko Hitzarmenaren alde urrats handiak egin izana goraipatzen dabil-tza estatu eta gobernu buruak, Nizan iragan meza handia porrot gisa laburbiltzea zailegia zaielako. 2023ko ekainean testuaren alde agertu ziren 116 estatu. Geroztik, berretsi egin dute 31k -gauzatu ahal izateko beharrezkoak diren 60 izenpeduretatik urrun...-, baina Ni-

zako Konferentziaren antolatzaileetan izandako Frantziako Estatuak zehaztera eman du "50 bat direla dagoeneko", eta "2026ko urtarrilaren 1ean abian jarriko dutela hitzarmena". Nazioarteko itsasoaren "bioniztasunaren kontserbazioa eta ustiapen iraunkorra" helburu du testuak. Helburua ederra eta ezinbestekoa izanik ere, zalantza ez ote den zabalegia *greenwashing*-aren aroarentzat...

USTELKERIA ARRASTOAK

IHNAREN presidentetza hartu zuen iazko abuztuaren Leticia Carvalho ozeanografo brasildarrak, 79 boto ukanik bere alde, eta 34 ukan zituelarik, haatik, ordura arteko presidente Michael Lodge britainiarrak. Ekologistek eta zientifikoek eskertu dute aldaketa, Lodgek TMCren dituen loturak argitara ekarri zituelako aurretik *The New York Times*-ek.

Funtsean, meatze-enpresak IHNAn infiltratuak direla diote hainbatek, tartean, Sandor Mulsow geologoak, hain justu, desesperazioz eta haserretik IHNAn zuen postua utzi zuenak: "Galdetzen diogu otsoari arditegia zaintzea".

Ondoko hitzordu nagusia izanen dute uztailaren 7tik 18ra, IHNAREN negoziazio zikloarekin. Erauzketa komertziala finkatzeko arautegia izanen dute gai-zerrendan. Moratoriari ala debekurik ez beraz. Beste behin, indar eta eragin gehiago dutelako erauzketaren aldeko lobbyek, krisi ekologikoa arindu nahian dabilen zientifikoek baino. Itsas hondoa urrunegi zaigu suntsiketaz ohartzeko, baina egon lasai, ondorioak pairaturiko ditugu. Eta orduan oroitu gara "jardun behar da, jardun behar da orain zientzian oinarrituta" zioten zientzialariek. ●



Hernani 23 · 20004 Donostia

T. 943 420 624

zinkunegioptika.com



AHLEM





ERABILTZEN GAITUZTE HERRIOK FOLKLORISMORAKO: LANDA, ANIMALIAK EDO EUSKALKIA BERA



Grabagailuari stop eman eta segituan galdetu dit Oiherrek:
“Transkribatzean mantenduko duzu euskalkia?”. Baietz nik, batuaren
mugek uzten didatenaren barruan baietz. “Arras inportantea da
niretako”. Dutxa hartu eta Elizondora eginen du berriz, Aroztegiko
auzipetuen aldeko akanpadako azken eguna da gaur.

 AMETS ARANGUREN ARRIETA  DANI BLANCO / ARGIA CC BY-SA

Zer da Erratzukoa izatea eta hemen bizitzea?

Erratzu nahiko herri txikia da eta herri txiki baten dinamikak ditu. Herrikoa zaren momentutik komunitate baten parte zara eta bada sare inplizitu moduko bat. Halabeharrezko elkarbizitza bat dago, ezin dituzu zure bizilagunak ekidin, bost taberna daude herrian.

Era berean, zentzu politikoan herrien aldekoa naiz. Arduraz jokatuta saiatzen bagara herri testuingurua eta komunitate osasuntsua eraikitzen, oinarriko balore batzuk berma ditzake horrek etorkizunean, zeintzuetan nik sinisten dudana sutsuki. Izan daitekeena, esate baterako, elkar zaintza. Hirian bizi izan naizenean super arrotza eta arras *heav-ya* egin zait nola normalizatzen diren

zenbait testuinguru eta errealtate berrituz. Adibidez, etxerik ez duen jendea kalean ikustea.

Bestetik, hau landa eremuko herria izaki, asko baloratzen dut lurrarekin nolabaiteko konexioa badela. Gaur egungo gizartean galdu dugu lotura lurra-ekin eta sinisten dut kontaktu horren garrantzia. Ez bakarrik gozamenetik, baizik eta gure oinarriek dagokienez. Bada biziki urritzen ari den komunitate bat eta kristoren tristura ematen dit.

Gasteizen itzulpengintza eta interpretazio ikasketak egin ondotik buelta egin duzu etxera.

Erabakiak hartzea asko kostatzen zaion pertsona horietako bat naiz, baina behin hartuta sutsuki eusten diot horri.

Nire burua babesteko izanen da agian, ez dakit.

Nik herriarekiko ez dut kexarik, zorte handia izan dut eta beti sentitu izan naiz oso eroso hemen, eduki dut komunitate bat zaindu izan nauena, baina bertze gauza batzuk esploratu eta deskubritze aldera herria txiki gera daiteke batzuetan eta hiria pila bat gustatzen zait.

Baina lau urteren ondotik mundu akademikotik geldialdia behar nuen. Interesatzen zait, baina oso mundu toxikoa dela iruditzen zait. Begizta batean sartu eta bizitza errealetik gehiegi deskonektatzera eramaten zaitu. Gutxi batzuen mundua da, pribilegiatu batzuen esku besterik ez dagoena eta horrek ez nau bereziki eroso sentiarazten. Horretatik pixka bat aldendu eta Erratzura



Oiher Urrutia Ballarena

ERRATZU, 2002



Erratzutik Gasteizera mugitu zen Urrutia itzulpengintza ikasketak egitera. Maite du jaioterriak ematen diotena, baina baita hortik kanpo topatzen dituen beste errealtate batzuk ezagutzea ere. Akademiari zorroztasunez begiratu eta *bizitza errealean* bizitzea du nahiago. Hori ematen dio, besteak beste, Erratzuk. Aski denbora eskaintzen dio bere jardun militanteari, beti kritiko, eta ez du sigla edo antolakunde konkretu eta bakar baten alde egiten, unean uneko borrokei batzen zaizkie.

itzultzea erabaki nuen orduan. AEKn ari naiz orain lanean.

Eta ongi?

Bai. Etxean badugu zaintza behar duen pertsona bat eta zentzu horretan erabakia arduratik ere hartu dut. Denon artean banatzen dugu ardura, baina denbora eskatzen du eta bizitzan dugun erlikiarik handiena da denbora.

Familiarengana bueltatzea ere bada duela bost urteko Oiherrengana bueltatzea eta hemendik kanpo eraiki ditudan espazioak edo hautsi ditudan parametroak hein batean deuseztatzea. Badakit ez dudala etxean bizi nahi, baina ez da orain garatu dudan pentsamendu bat, aspaldi sentitu izan dut hori. Nolanahi ere, nahiko kontent bizi naiz hemen.

Hegozentrismoa aipatzen du Odei Barrosok bere kantu batean. Nafarroa Garaia eta Beherearen arteko mugan gaude kasik. Are nabarmenagoa al da hori hemendik?

Ehuneko ehunean konpartitzen dut termino hori. Beti buruan izan dudana ideia bat da, baina pila bat nabaritu dut Gasteizen bizi izan naizen urteetan. Uste dut Euskal Herrian anitzetan aipatzen direla periferiak, baina euskaldunagoa den eremuaren barnean ere badirela beste periferia batzuk: herri txikiak, besteak beste. Ez daude batere proiektu ideologiko eta ideal horren barnean. Gaur egun hartzen diren erabaki politiko gehienak hirietan zentratzen dira eta, noski, EAERI begira.

Erabiltzen gaituzte herriok folklorismorako: landa, animaliak edo euskalkia bera. Baina artifiziala da dena, sinbolikoa, jendeak ez ditu herriak bizigarri ikusten, arras karikaturizatuak gaude.

Sentitzen dut, era berean, Espainiak eta Frantziako estatuetatik datorrigunaz apartekoa dela hau, guk geuk sustatzen ditugun postalak direla eta are larriagoa iruditzen zait hori.

Itzulpengintza ikasi duzu, baina ez zara horretara bakarrik mugatzen.

Bada joera bat gure gizartean sobera erraz eraikitzeke norbere identitatea pasio bakar baten bueltan eta hori oso murriztailea da. Ez dut sinesten jendea gauza bakar batean aritzen

denean sutsuki, afera filosofiko edo identitarioetan beti da interesgarria zure burua zalantzan jartzen egotea. Frustra zaitzake momentu batzuetan, baina horrek ere irekitzen ditu bide batzuk.

Baina denok dugu geure burua zerbaiten bueltan aurkezteko beharra.

Bai, baina uste dut oso toxikoa dela hori. Izaera lanarekiko eraikitzea oso normala da eta penagarria da. Uleretzen dut denok behar ditugula diru-sarrerak, baina lana da diru-sarrera bat lortzeko bidea eta puntu. Lanak izan behar du nolabaiteko garrantzia, ulertzen dut, eta lanean gustura egotea oso garrantzitsua da, baina badira beste gauza batzuk aise inportanteagoak hori baino.

Hizkuntzalaritza masterra egin nahiko zenukeela komentatu izan didazu.

Hizkuntzalaritza da akademikoki gehien interesatzen zaidan gauzetako bat. Karrerako lehenengo urtean izan nuen oso irakasle on bati esker, Gorka Elordietari esker, hein handi batean. Harekin egin nuen GRALA, Erratzuko dialektologiaren ingurukoa.

Euskara eta hizkuntzalaritza interesatzen zaizkidan aldetik uste dut aro garrantzitsua bizi dugula. Euskara batuarekin inolako harremanik izan ez duten biztanleak hiltzen ari dira eta hemendik aitzina ez da inoiz euskaldunik egonen euskara batuarekin harremanik izan ez duenik. Hori jaso eta dokumentatzea oso inportantea iruditzen zait.

Nola ikusten duzu Erratzuko gazte gisa euskalduntasuna?

Oso interesgarria iruditzen zait, baina izan da gauza bat hemendik kanpo deskubritu dudana. Niretzat euskaldun izatea naturala eta integrala izan da beti. Nik ez dut izan lagunik erdaldunak zirenik.

Hemendik atera naizenean eta eremu erdaldunagoetako jendea ezagutu dudanean, Iruñekoa, adibidez, ikusi dut haien euskalduntasuna hautu politikoa izan dela, pertsonala. Nik pertsonalki zein politikoki egiten dut horren alde, baina uste dut herri euskaldunetan bizi den gazte anitzen kasua ez dela hori. Hizkuntza natural bizi dute modu integralean, baina ho-

rrek ez ditu, kasu askotan, atxikimendu politikoa garatzera eramán.

Pentsatzen dugu euskalduna izatea erabaki politikoa dela euskaldun guztiendako eta hori ez da errealia, hori ikuspegi hiritarra da. Hartuko banu ausaz Bilboko eta Baztango euskaldun bana, askoz ere aukera gehiago legoke bilbotarra militantea izateko Baztangoa baino.

Herri zapaldu batean bizi garen aldetik, ez dut ukatzen euskaldun izateak badakarrela kontzientzia politikoa bere horretan, baina uste dut gure belaunaldiak ez duela hori ongi jasotzen jakin, transmisioa ez dela ongi eman.

Zein transmisio?

Ez dakit, nazioaren afera eta. Gauza horiek oso anbiguoak dira niretzako momentu honetan. Globalizazio eta Internetaren garai honetan dena da hain indibidualista... Euskaldunari jarri zaizkio hain etiketa folklorizatu eta konkretuak euskaldun izatea zer den ere ez da kidala.

Gizarte globalizatua garen aldetik, gaur egun munduko dinamiketarik kanpo bizi nahi izatea iruditzen zait super zaila. Uste dut nahitaezkoa dela integraztea. Noski, filtro batzuk pasa eta guk geuretik eraikiz. Eta muga bat behar da, baina hori planteatzera ere ez gara heldu. Kulturak anitza izan behar du eta errealitatea anitza den heinean, hori erreproduzitu. Miren Amurizaren *Pleibak* izan daiteke adibide ona.

Aurrekoan Beñat Sarasolak aipatzen zuen Sally Rooney-ren *Intermezzo*-k euskaratua beharko lukeela jada.

Gauza bera erran nuen nik. Niri pagatzen ahal dit edozeinek egiteko [barreak]. Etengabeko azelerazioan bizi gara eta argi dago euskarak ez duela gaitasunik denari erantzuteko, baina pixka bat gehiago lotu behar gatzazkio horri. Bestela, Sally Rooney-ren fan batek, nik adibidez, ez dut itxaronen bost urte kalera-tzeko *Intermezzo*-ren itzulpena, ingelesez irakurriko dut eta listo, baina penaa da.

Zeintzuk dira momentu honetan zure lehentasunak?

Hitz horretan pentsatuta nire baloreak datozkit burura. Neure buruarekin banean eta zintzo sentitzen naiz. Naturalki eta arduraz bizi dut egiten dudana eta horrek aske sentiarazten nau, kontsekuentea da nire jarrera. Erraza da gauzak irakurri eta alde agertzea, baina horrek



ez du deusetarako balio gero zuk ez badituzu aplikatzen.

Zure jardun militantea ez dago antolakunde zehatz baten atzean. Zein abantaila eta oztopo ditu horrek?

Samantha Hudsonen, nire ustez XXI. mendeko filosofo inportanteenetako batek erraten duen bezala, mundu honetan interesgarriena beti da perineoa. Niri gustatzen zait hor mugitzea. Uste dut Euskal Herrian dagoen egoera egonda, gazte militantea izanik, bi aldeetako batean kokatu nahi ez izatea eraba-

“““

Uste dut Euskal Herrian dagoen egoera egonda, gazte militantea izanik, bi aldeetako batean kokatu nahi ez izatea erabaki arras konplikatua dela

ki arras konplikatua dela. Eta uste dut errespetagarria ere badela. Epaitua izan den eta den posizioa da eta, berriz, anbiguotasunari ez zaio espaziorik uzten. Ematen du hala dela: “Edo nirekin zaude edo nire kontra”, eta bizitza ez da horrela. Bakoitzak ahal duena

egiten du eta sutsuki defendituko ditut alde horietako

bakoitzean daudenak. Lan handia dago eta oso beharrezkoa den engaiamendua, baina nik momentu honetan ez dut nire burua pertsonalki edo politikoki prest sentitzen hor sartzeko. Ematen du

hortik kanpo ez dela lekuri eta badira anitz espazio gehiago.

Askotan iruditzen zait militantzia eredu horietan badela “ez dakit nork erran du hau horrela egin behar dela” eta hori ez zait inoiz gustatu eta ez zait interesatzen. Bide bat segitu behar da, baina nire ustez horrelakoetan askotan galtzen ditugu gure filtro pertsonalak.

Uste duzu aldeetako batera ez lerratzeak ematen dizkizula pribilegio batzuk?

Nire ustez, posizio hau momentu honetan lerratua egotea baino zailagoa da. Iruditzen zait antolakundeetatik asko defenditzen dela espazioa, egitura bera. Bi aldeetako oso hurbileko lagunak ditut eta elkar errespetatzen dugu erabat. Eztabaida politikoak ditut, baina ez naiz haiekin konfrontaziora heldu. Badira gauzak gustatzen zaizkidanak alde batetik eta beste batzuk bestetik, baina ez zait ez baten eta ez bestearen dena gustatzen eta ez dut dena defenditu nahi. Alde batekoen zein bestekoek manifestara joaten naiz kasuaren eta egoeraren arabera, eta uste dut hori ere errespetatu behar dela.

Seinalatzea zilegi da, baina horrek



ezin du izan motibazio edo lehentasuna. Uste dut 2025ean interesgarriagoa den egoera batean gaudela. Ez dakit “bake” dei dakioken, baina argi dago fase bat bukatu dela, ikusi beharko dugu zertara goazen orain.

“““

Samantha Hudsonen erraten duen bezala, mundu honetan interesgarriena beti da perineoa

tu, pasatzen direnak ez metro bat, baizik eta hiru metro, baina ematen du militantea zarenez oso guay-a zarela eta ez, hori ez doa horrela. Militante baino lehenago pertsona zara eta pertsonala politikoa da, beraz, zuk pertsonaletik ere eragin behar

duzu. Ez du deusetarako balio gauzak publikoki defendatzeak gero aktiboki ez badituzu intimitatean eta pertsonalean defenditzen.

Bada beste gauza bat eremu militanteetatik oso esanguratsua egiten zaidana. Badira proiektu batzuk politikoki Euskal Herriaren alde egiten dutenak eta gero hizkuntza hautu lotsagarria egiten dutenak: haien proiektuan erdara integratu nahi izan eta gaztelania besterik ez integratzea. Kristoren hanka-sartzea iruditzen zait. Ezin da erabili “Ipar Euskal Herriko jendea ere bai” komodia. Ez. Errespetatu. Eta errespetatzeko lehenengo forma da kontuan hartzea.

Ez dakit zerbait gehitu nahi duzun.

Uste dut zentratu behar dugula lekuan lekukoan. Baloreak definitu behar dira eta horiekiko jokatu, baina dena beti azpitik goiti eraikiz, bertze ez du deusetarako balio. Hain dira desberdinak errealtateak, bertze leku batean funtzionatu duenak ez duela zertan hemen funtzionatu, lekuan lekuko erantzunak topatu behar ditugu. ●



Koop
mitxelena
MEKANIZATUAK
Neurri handiko piezen
mekanizazioan espezialistak



Eziago industrialdea 21, HERNANI

943 55 25 12 - 16

info@talleresmitxelena.eus

www.talleresmitxelena.eus

Esan dezakegu ez zarela fidatzen gauzak oso argi dituen jendeaz?

Sinetsi behar da gauzetan, baina uste dut eskaini behar zaiola beti espazioa aldaketari. Hori ez egitea oso maskulinoa da.

Disfrutatu behar dugu bizi honetan [barreak]. Arduraz beti, baina ezin dugu bizitza geure buruak martiritzen pasa, horrela ez gozelako inora. Argi izan dezakezuna da zeintzuk diren zure mugak, zure marra gorriak, baina zerbaiten aurrean kokatzeak ez du erran nahi ehuneko ehuneko eta betiko hori defenditu behar duzunik, baizik eta etorkizuneko errealtatea eraikitze bidean iparrorratz gisa ulertzen duzula.

Horri lotuta uste dut bizi honetan gauzei joaten uzten jakin behar dugula.

Uste duzu panfletarismo handia dagoela?

Bai, baina gehienbat gizonen partetik. Eta iruditzen zait anitzez problematikoagoa militante diren gizonengan. Badira gauza batzuk ezin direnak onar-



PSOEren kea



JESÚS RODRÍGUEZ
DIRECTA-KO KAZETARIA

Ekainaren 6an Presidente Autonomikoen Konferentzia egin zen Bartzelonan, Pedro Sánchez eta Felipe VI.a erregea –emeritu ustelaren oinordekoa, beti da ona gogorarazteaburu zirela. Isabel Díaz Ayuso faxistak uko egin zion Salvador Illaren eta Imanol Pradalesen katalanezko eta euskarazko interbentzioak entzuteari; 48 ordu geroago PPK Madrilen deitu zuen “mafia-aren aurkako” manifestazioaren atarikoak izan zen. Baina, aldi berean, ke-gortina perfektua zabaldu zuen, bilkuraren gai-zerrendako puntu nagusia ikusezin bihurtzeko: etxebizitza duin baterako sarbidearena. Errentatzaileen lobbyek eskerrak emango dizkiote, seguru.

Bilkuraren kanpoaldean prentsaurreak egin zuten Sindicat de Llogateresek, Bartzelonako PAHk eta Som Barri de Vallcarca auzo elkarteak, poliziek inguratuta. Mezu zuzena bidali zioten PSOEri etxebizitza politiken inguruan. Etxebizitza publiko gehiago –sustapen guztietan %30eko derrigorrezko erre-serbarekin– eta etxegabetze gutxiago, indarrean dagoen moratoria aplikatuz eta elkarritzeta irekiz, eraikinen titular-tasuna sozialistek gobernatutako administrazioena denean.

Aran Llivina auzo elkarteko bozemaileak elkarritzeta batean honakoa zehaztu zuen: “Alderdi sozialistarekin ezer gutxi dago eztabaidatzeko adreilu eta diru kontuak tartean daudenean”. Errealitate hori da Pedro Sánchezek aurre egin nahi izan ez ziona Bartzelonako bisitan. Etxebizitza ministroak argazki

Bartzelonan jarraitzen dute egunero hogeit bat etxegabetze egiten. (...) Etxegabetzeen hazkundera egokitu duten egitura publiko bakarra istiluen aurkako poliziena da

bat antolatu zion, Cubelleseko (Tarragona) babes ofizialeko etxebizitzetako giltzen entregan; baina azkenean ez zen agertu, Voxen kontzentrazio batekin topo egitea saihesteko. Ez zuen hitzik egin sindikatuekin eta auzo elkarrekin; ez bilkuraren atarian, ezta modu diskretuan ere. Ez Sánchezek, ez Illak, ez Collboni alkateak.

Kontrara, errealitate gordina dago. Bartzelonan jarraitzen dute egunero hogeit bat etxegabetze egiten. Odoluste geldiezina. Etxebizitzaren Galeran eta Okupazioan Esku Hartzeko Zerbitzua egoteaz gain –etxegabetzeak aldi baterako eten ditzake jabeek onartuz gero soilik–, etxegabetzeen hazkundera egokitu duten egitura publiko bakarra istiluen aurkako poliziena da.

Udaltzaingoak agintaldi honetan ir-motasunez berrekin dio atea lehertze-

ko funtzioari –partzialki geldiarazia Ada Colauren gobernuetan–, eta Laia Bonet eta Albert Batlle (PSC) bezalako zinegotziek legea bihurtzen dute udal eraikinak desalojatzeko: kaleratzeak bide administratibotik exekutatzen dituzte –kaltetuei ahalbidetu gabe bermerik handiena duen bide judiziala irekitzea–, eta familiak etxerik gabe uzteko, arrazoitzen dute “bizitzeko baldintzarik gabe” daudela; beren segurtasunagatik egiten dute, zinikoki. Alternatiba: bi gau pentsio batean eta, ondoren, kalean bizitzea.

Errealitate hori da maiatzaren 27an Katalunia bisitatu zuten etxebizitzaren komite bereziko europarlamentariei ere ezkutatu zieten; izan ere, betoa jarri zioten PAH haiekin bildu ahal izateari. Salvador Illak hitzeman du 50.000 etxebizitza publiko eraikiko dituela eta Pedro Sánchezek ziurtatu du Sareb-en higiezinaren parkea mugarri horren zerbitzura jarriko duela. Arazoa da hori guztia kea besterik ez dela izango, baldin eta paradigma aldaketarik ez badago lurzorru, etxebizitza eta ezkutuko negozioan.

Pedro Sánchezen zazpi bizitzek, parlamentuko bazkideekiko oreketatik eta eskuin muturrak sustatutako lokatzaren makineriatik harago, arrisku errealagoa dute behean eta ezkerrean: parlamentuan gehiengo eskuratzeko botoa eman zioten pertsona askok PPren eta Voxen gobernu geldiarazteko pizgarria galtzen dutenean. Etxetik botatzen zaituztenean edo hilabete bukaerara iristen ez zaizun soldata duzunean, botoa ematera joateko pizgarria desagertuz doa... ●

Kantua gidari



KATIXA DOLHARE-ZALDUNBIDE
LITERATUR ZALEA



DOM CAMPISTRON

Joan den maiatzaren 23an iragan da, Baigorriko elizan, aparteko kontzertu bat: 180 hurrek, 7 eta 15 urte artekoek, maila handiko kantu emanaldia eskaini diote eliza mukuru bete zuen jendeari. Haur horietarik batzuk Donazaharre eta Baigorri aldean kokatua den Iparralai musika eskolako koruetatik zetozen, baina gehienak bi kolegio publikotatik, Donibane Garaziko Zitadela eta Baigorriko Jean Pujo, bai eta Seaskako Larzabaleko Manex Erdozaintzi Etxart kolegiotik ere: azken hiru ikastetxe horietako gazteak ez dira berez musikariak, ez dute denek partitura irakurtzen ikasi eskolatik kanpo, haien ahotsa erabat landugabea da. Baina maite dute kantatzea eta, bereziki, irakasle arraroak badituzte: Denise Olhagaray eta Intza Daguerra.

Kontzertu hartan, kantariek ustekabeko omenaldi hunkigarria egin diote erretreta hartzen duen Denise Olhagarayri: maitasun kantu bat kantatzen ari zirela haren zuzendaritzapean, abesten gelditu gabe, agerrarazi dute, koruaren zentrolik, bihotz zabal bat, hamarnaka mezu pertsonalez inguratua, maistra eskertzeko. Eta beste sorpresa-momentu batean, ikasle ohi talde eder bat aitzinera hurbildu da beste amodiozko doinu bat emateko.

Maitasun adierazpen horiek sustengatu dituzte publikoaren txaloek, Denisek bizitza osoan ekarri eta emandako guziaren esker ona erakusle. Ezen, belaunaldiak markatu ditu Denisek, lehenik Ezpeletako Ezpela taldean, ondotik Iparralai musika eskolan, baina bereziki aipatutako bi kolegio publikoetan. Hainbat eta hainbat urtez, pasio sutsu batek bultzaturik, ehunka haur formatu ditu, ez bakarrik euskal kantara, ez bakarrik beste hizkuntzako kantara, ez bakarrik abesbatza diziplinaren eskakizunei –ikasleak “zerotik” hartuz–, baina euskalduntasunari ere bai, epe luzeko proiektuen bidez, beti ikasle norbanakoen errespetua zainduz eta gazteen arteko elkartasuna sustatuz.

Pedagogo bikaina agertu den irakasle nekaezina dugu Denise, eskakizun handikoa, osoki emana bere buruari finkatutako helburuari: gizaldi gazteei –bai musika elkarteko kantagintzarako zaleei, bai Errepublikan frantsesak kudeatutako ikastetxeko ikasleei–, musikaren bidez, guzien baitan transmititu euskara eta euskal kulturarekiko atxikimendua. Urte batetik bestera, Deniseren proiektuen arabera, kantari horiek murgildu ahal izan dira Euskal Herriaren geografian eta historian; landu dituzte gure klasikoak,

kantatu gure izarrekin, gure orkestra sinfonikoekin, Hegoaldeko hainbat abesbatzarekin... Kantua eta musikaren bidez, bere jite goxo eta tematsuari esker, Denisek ikasle, buraso eta laguntzaileak saldoan erakarri dituzten egitasmoak sortu ditu, euskaltasuna arrotz zutenak barne, ez baita balentria ttipia. Eta horrela, zonbat hazi ez dituen erein, zonbat kantari edo musikari ez den gero loratu Deniseri esker! Delako kontzertu hartantxe, bagenuen fruitu horietariko bat: Haize Carricaburu piano jole jeinutsua, Ipar Euskal Herriko Hitzak berriki argitan ezarri duena.

“Zoin bide hartu nahi dugu? Zer nahi dugu?”. Horiek ziren aurtengo kontzertua bideratu zuten galderak. Eta hona zoin izan diren erantzunak, hamar mintzaira ezberdinetan eman kanturen bidez: “Zer nahi dugun? Bakea eta askatasuna: Euskal Herrian, Palestinan, mundu guzian, orain. Zoin bidetik ibili nahi dugu? Maitasuna, musika eta jostetaren bideetatik, bizipozez beterik”.

Bihotza bezainbat arima emozioz blaitu zieten entzuleei, kontzertu hark. Deniseren ereduaren haritik segi bezate bere jarraitzaileek etorkizuna fede suharrez eraikitzen, gure ametsak oraindik gauza daitezkeela sinets dezagun. ●

Zein ama ospatu?



**IDOIA RODRIGUEZ
MONDRAGON**
IDAZLEA ETA
PEDAGOGO

Maiatza Birjina Mariaren hilabetea den bezala, amak ospatzeko aukera da Mendebaldeko jendar-tean. Kasualitatea? Ez dut uste. Frantses lurraldean, Vichyko gobernuak besta hori instituzionalizatu zuen. Helburua bertuteko eta sakrifizioak egiteko prest den pertsona hori handiestea, batez ere sukaldean, menpekotasunean eta ugal-kortasunean mugatua delarik. Espainiako lurraldean ere, ama maitale ideala goraiatzeko da, erro giristinoak mantenduz. Oro har, gertakari horrek gurasotasunari buruzko ikuspuntu tradizionalista gogoarazteaz gain, jaiotza-helburuak azpimarratzen ditu.

Gaur oraindik, ez ote diegu emazteei galdetzen noiz egingen duten haur bat, erreproduktzioari mugatuak balira bezala? Ez ote diegu oroitarazten haien ordulari biologikoa aitzinatzen dela eta damutuko direla ez baldin badiote haien zorteari erantzuten? Haurrik gabeko emakumea, zinezkoa ote da?

Alta, zelebrazio hori merezitzeko ez da nahikoa. Ama perfektua izan behar da, hots, baliozkoa: zuria, fina, zisgene-roa, heterosexuala eta senarduna.

Arau horiei guztiei erantzunez, beharbada emazteek errekonozimendua ukanen dute. Ospakizun honentzat, marketingak lan sendoa egin du etxeko ardurak nork dituen oroitarazteko, garbigailuak, aspiragailuak eta kargu mentala igotzen

duten tresnak eskainiz. Jantziak, makillajea, masajeak ere oparitzen dizkiogu gure etxeko andere idealari. Gure ikonoak ohoratzea bai, baina nahi dugun bezala apainduak direlarik!

Baina nahi edo ez, Europan eta jendarte kapitalistan, familia ereduak aldatu dira. Batzuek oraindik sistema nuklearra eta tradizionalistari monopolioa eman nahi baldin badiote (sare sozialetako *tradwife* eta mugimendu maskulinisten arrakastak adierazten duten bezala), errealitatean, modeloak aniztu dira. Bi bikote heterosexualetatik bat separatzeaz gain, bikotekide gabeko emazteek eta lesbianek haurrak egiteko eskubidea dute (legeak dioenaren arabera, behintzat). Orduan, zein zentzu eman gertakari horri?

Amen bestaren sinbolika garrantzitsua da, batez ere, bizitzen dugun eskuin muturraren igoeraren testuinguru orokortuan. Ikuspegi sexistak mantentzen eta zabaltzen dira eta horren parean erresistentzia egin behar da, gure ohi-turak gogoetatuta. Orduan, ama ideala eta mistifikatua ospatzeko ordez, zergatik ez ditugu maite eta zaintzen gaituzten pertsonak goraiatzeko? Zergatik ez dugu egun hori baliatzen askotariko maitasun eredu positiboak baloratzeko? Ezin ote ditugu haurrak errespetuarekin kudeatzen dituzten pertsona eta familia antolakuntza guztiak zoriundu? ●

Salbuespenak



UXUE APAOLAZA
EUSKARA IRAKASLEA

Hainbeste jainko, arima, teontzi... beren izatea frogatu ezinik, eta jendeak ez ditu sinesten zientziak, kazetaritzak... ahal bezala, baina geure espezieaz harro egoteko moduan, frogatutakoak. Batzuek Lurra lau dela diote, eta debekatuta dagoela Antartikara bidaiatzea, hori ezkutatzeko. Lagun batek imajinatu zuen *terraplanista* espedizio bat haraino iristen, eta deskubritzen hara iristeko zailtasunek, berez, zer kausa zuten.

Han dago, guztiaren bestaldean, zakil txikiko beltza. Euskal ezkerreko militante hedonista, eta askotariko gizonekin larrua oso maiz jotzen duen feminista. Laguna Hego Amerikakoa da, eta era-

man ditu pikantea gustatzen ez zaion txiletarra, dantzan ez dakien kubatarra, argentinarrak lotsatia: hirurak irakurleak, eta ballet zaleak. Espainiarren bat ere bai: ingelesa ez, euskara ikasi duena; *aurkikuntza* eta *birkonkista* hitzekin arazoak dituen; Espainiako Estatuan, demokrazia esan zaion aldiari, sistematikoki torturatu dela frogatutzat jotzen duena. Eta lau bat epaile, Aiert Larrarte eta Iratxe Sorzabal.

Izan ere, horiek guztiak errealitatea desitxuratu baino egingo ez luketen salbuespenak dira. Kubatarrek hezur bat gehiago dute ondo dantzatzeko, feministok ez dugu larrua jotzen eta Espainiako Estatuan... zen. Ez? ●

Gizatasunaren amaiera



MATI ITURRALDE
MEDIKUA

Duela urtebete, toki honetan bertan, existitzen ez zen herri bati buruz idatzi nuen, eta existitzen ez den herri horrek Palestinako genozidioa geldiarazten lagunduko zuela amestu nuen. Argi dago ez dugula lortu. Urtebete geroago, oraindik ere, haurren hilketa masiboak eta herri oso baten suntsipena ikusten ari gara, kondiziorik krudelenean. Gure bizitzekin, gure kezkekin, gure nahiekin eta porrotekin jarraitzen dugu, baina gure buruen gainetik, gizatasunaren zentzuaren galera sentitzen dut.

Urte luze honetan, hamaika aldiz galdetu diot neure buruari zer egin nezakeen, eta ez dut ezer baliagarriarik aurkitu laguntzeko. Azkenean, autokontzientzia ariketa gisa, neure burua behartu dut telebista kateak ez aldatzera Gazako eguneroko izugarrikeriaren irudiak erakusten dituztenean: bonbardaketak, suntsitutako herriak, suntsitutako giza-kiak, bai eta herrialde demokratikoetako gizarteak ordezkatzen omen dituzten politikarien joko dialektikoak ere, muntro sionista ez haserrearazteko.

Gizaki gehienok zintzoak gara, eta besteak kaltetu gabe zoriontsu izaten

Existitzen ez zen herri bati buruz idatzi nuen, eta herri horrek Palestinako genozidioa geldiarazten lagunduko zuela amestu nuen. Argi dago ez dugula lortu

saiatzen gara. Gure ametsen eta desioen alde borrokatu gara, eta batzuetan, amore eman behar izan dugu, baina indarrik ez genuenean edo dena gure aurka zegoenean soilik. Komunitateak eta indibidualtasunak eraiki ditugu, batzuetan, maite ditugun lekuetan, eta beste batzuetan, guretzat arrotz eta zailak ziren lekuetan. Oso gutxiarekin bizi izan gara, eta batzuetan, gehiegirekin; maitasuna eta edertasuna bilatu ditugu, eta, batez ere, geure bizitzaren zentzua bilatu dugu.

Eta hala ere, ez gara gai izan moralik gabeko izaki gutxi batzuek mundua goberna dezaten eragozteko, eta haien interesak eta pribilegioak gainerakooi inposatu dizkigute. Egutero engainatzen eta manipulatzeko gaituzte, kontsumoaren morroiak izateko. Mozkin marjina nahikoa izatearren, sailkatuta, pribilegiatuta edo miseriara kondenatuta gaude. Planeta, lurraldeak eta bizi sistemak suntsitzen dituzte, eta inbertsio eta negozio dibertsifikazioa besterik bilatzen ez duten arren, plan “berdeen” aitzakiarekin endredatzen gaituzte. Eta herrialdeak armatzen eta berrarmatzen jarraitzen dute, gobernu txotxongiloek lagunduta.

Nola iritsi gara honaino? Ez dakit. Ezerk ez die inoiz Gazan eraildako hurrei kendutakoa itzuliko. Hala ere, nire errekurtsio bakarra da ingurura begiratzea eta bizi naizeneko komunitate hauskorrak indartzeko modua aurkitzea; horrela, mundua aldatzeko itxaropenari eusten jarraituko dut, krudelkeriak eta boterearen gehiegikeriak gizateriari amaiera eman aurretik. ●

Garenaz harro

EKAINAK 27 / 19:30, Erribera Kulturgunea
Film-laburren emanaldia (Zinegoak).

EKAINAK 28 / 19:30, Kontxa Etxeberria plaza
Mikra, zirku garaikide ikuskizuna. Berdinki konpainiaren eskutik genero rolen eta botere harremanen inguruko gogoeta.



Astigarragako Udala

HONDARTZA



GUZTIONA

GOZATZEKO

DA



PLAZERRA,



ZAINTZEKO

BETEBEHARRA



ISRAELEN OKUPAZIOAREN KONPLIZEAK

Apartheid isilaren geltokiak

Mundu guztia Gazari begira ari da orain. Baina Palestina ez da lur hori bakarrik. Bada beste lurralde bat, izen bera duena, ostutako lurren atzean, moztutako gorputz adarra nola begiratzen diona galdutako lurrari: Zisjordania, eta, egoera are bereziagoan, Jerusalem. Lurralde osoaren hiriburu izan zen Jerusalem, hamaika poeta, idazle eta zinemagile-ren betiereko musa. Egun, legez zati-

tuta, eta ilegalki okupatuta eta anexionatuta dago. Eta begi eta foku guztiak Gazan dauden bitartean, palestinarrek jarraitzen dute beren lurrian ilegalak izaten, etxeetatik kanporatuak izaten, eta giza eskubideen urraketak pairatzen. Hori guztia Jerusalem mugen barruan ari da gertatzen, Euskal Herriko eta nazioarteko enpresa askoren laguntza eta onespenerekin.

 MARIA ORTEGA ZUBIATE

Ez da giza eskubideen urraketa-rik atzeman CAFen 2024ko ezein proiektutan". Esaldi hori jasotzen duen txostena eskuetan sartu dira CAFeko akziodunak Beasaingo egoitza nagusian. Urteko batzarra dute eta urteak eman duenaz ariko dira. JLR Jerusalemgo tranbiaren proiektua ere landuko dute bileran, hain zuzen ere, horri buruz ari da txostenaren zati hori, 2019tik CAF ari baita hango bi linea eraikitzen, Shapir enpresa israeldarrarekin bazkidetuta eta 1.800 milioi euroko kontratu batekin. Egun eta ordu berean, Donostian, manifestari andana bildu da CAF, jaitsi Israelen apartheidaren trenetik leloa duen pankartaren atzean, BDZ Euskal Herriak deitutako mobilizazioan. Donostian bakarrik ez, CAFek egoitzak dituen herrialde guztietan daude mobilizazioak: Katalunian, Andaluzian, Ga-

lesen... Bien bitartean, Mounir Marjeh, Jerusalemgo Al-Quds Unibertsitateko Ekintza Komunitarioko nazioarteko ekintzailea CAFeko egoitzan da. Eskutetan darama Jerusalemgo herritarrek emandako mezua, eta helburu argia du: CAF Jerusalem eraikitzen ari den tranbia okupazio ilegala betieretzen ari dela ikusaraztea.

"Israeliek palestinarren aurkako apartheid erregimena du martxan 1948tik", laburbildu du Marjeh bere herriaren egoera, eta gehitu du: "Apartheid gizateriaren aurkako krimena da". CAFen egoitzan ekimena egin aurretik, Marjeh Nafarroako Parlamentuan eta Eusko Legebiltzarrean izan da, hitzaldi batzuk eman eta hedabideekin elkartu da. Zorrotz eta aho bizarrik bakar egiten du berba, eta argi du aipatu tranbiak goitik behera zeharkatzen due-

la bere herria: "Tranbia hori Ekialdeko Jerusalem Israeliek eraiki dituen asentamendu ilegalen egituraren parte da".

Egoera konplexuan bizi da Marjeh-ren herria: bi zati edo gehiagotan banatuta, bata bonbapean suntsipen bidean; bestea, nazioarteko fokutik kanpo, galbide isilean. Munduko kamera guztiak Gazan daudenean, Israelgo Armada Gazan egiten den sarraskiaren kontrako ahotsak gero eta oihartzun handiagoa hartzen ari diren momentuan, Palestinako beste lurraldeetan gertatzen ari denaz ezer gutxi entzuten da. Eta azaltzeko ere ez da erraza: Marjehri, ordea, nabari zaio ohituta dagoela gatazka atzerritarrei azaltzen.

"Tranbia eraikitzeko onartutako ebazpenetako hitzaurreetan, Israeliek argi eta garbi dio ebazpenen helburua



‘CAF, jaitzi zaitez Israelen Apartheidaren trenetik’ lelopean, manifestazioa egin zuten ekainaren 14an, Donostian.

DANI BLANCO / ARGIA CC BY-SA

dela Israeliek Ekialdeko Jerusalemen ezarri duen subiranotasuna indartzea”, azaldu du, zehatz. Horrez gain, JLRren eraikuntzan CAFek duen bazkidea, Shapir enpresa israeldarra, okupazio ilegaltetik onurak ateratzen dituzten enpresen zerrendan sartu du NBERen Giza Eskubideen Kontseiluak. Salaketa horiek talka egiten dute CAFek kaleratutako txostenarekin, zuzendaritzak baitio tranbiak ez duela gutxiengo etnikorik diskriminatzen; are, edonorentzat irisgarria dela azpimarratzen du.

Apartheid politiken ezaugarri nagusiak azaldu ditu Marjiek: herri batek bestearekiko dominazioa lortzea, etnien oinarritutako zapalkuntzaren eta gizateriaren aurkako ekintzen bidez. Israeliek palestinarren aurka politika horiek ezarri dituela azpimarratu du: “Bi politika nagusi izan ditu Israeliek Ekialdeko Jerusalemen. Batetik, judutarren gehiengoa ezarri du, lurraldea judaizatu du, palestinarrak menperatu ahal izateko; eta, bestetik, ziurtatu du ilegalki anexionatu dituzten lurraldeak, Ekialdeko Jerusalemen, betirako izango dituela kontrolpean”. Bigarren politi-

ka horretan sartzen da CAFen tranbia, bere helburua, hain zuzen ere, horixe baita: “Ebazpenetan ez du palestinarren onurarik aipatzen momentu batean ere. Tranbiaren helburu argia da Israelen subiranotasuna indartzea; hau da, subiranotasun ekintza bat da, eta Israeliek, indar okupatzailea den heinean, ezin du subiranotasunik ezta botererik izan lurralde horren gain”.

Horrela, bada, proiektua legez kontrakoa da; hori darabil Marjiek ahoan. NBE Nazio Batuen Erakundeko Giza Eskubideen Kontseiluak horrela iritzi zion 2016 eta 2017an, nazioarteko zuzenbidea “urratzen” duela iritzita. Are, 2024an Nazioarteko Zigor Auzitegiak ebatzi zuen Israelen okupazioa legez kontrakoa zela, eta estatuek uko egin behar diotela Israelekin harreman ekonomiko edo komertzialak izateari.

LURRAREN KONKISTA

Ekialdeko Jerusalemen eraikitzen ari diren tranbiaren luzapena -2011tik baitago martxan Ekialdeko Jerusalemgo tranbiako linea gorria- Marjiek aipatutako politiken adibide bat baino ez da.

Baina egun gertatzen ari dena ulertzeko atzera begiratzea ezinbestekoa da, eta askotan kontatua izanagatik ere, Palestinako historia katramilatsua eta nahasgarria suertatu daiteke.

1948tik, Israelgo Estatuak aldarrikatu zutenetik, lurraren gaineko borroka etengabekoa izan da. Urte horretakoak dira nazioarteko erakundeek, tartean NBE, onartutako Israelen mugak. Ilan Pappé historialari israeldar antisio-nistak Israelgo Estatuaren sorreratik bertatik aztertu du palestinarren zapalkuntza, besteren artean, *Munduko kartzelarik handiena* liburuan. 1948az zera dio Pappék: “1948ak aukera historikoa sortu zuen bi helburu betetzeko: lurraldearen zati handi baten jabe bihurtzea eta bertako biztanleriaren gehiengoa botatzea”. Are, urte horrek *Nakba* izena hartu zuen palestinarren memoria kolektiboan. “*Nakba* arabierazko berba bat da, palestinarrek pairatu zuten katastrofea azaltzeko erabiltzen duguna”, azaldu du Marjiek.

1948an Israeliek aldarrikatu zituen mugen barrian milaka palestinar bota zituzten, masiboki bota ere. “Bertako

biztanleriaren erdia bota egin zuten, euren herri eta hiri erdiak suntsitu, eta Mandatu Britainiarreko Palestinako lurraldearen %80 Israelgo Estatu judua bihurtu zen”, laburbildu du gertatutakoa Pappék. Israelen mugen barruan geratu ziren palestinar apurrek “lege militarren mende” egin zituzten hurrengo hamarkada eta erdia, baina israeldar herritartasuna eskuratu zuten, azaldu du Marjiejh.

Urte horretan banatu zuten Marjiejhrek hizpide duen hiria. Mendebaldeko Jerusalem Israelgo Estatuak bereganatu zuen, eta ekialdea Jordaniak hartu zuen. Hiria, berez, nazioarteko potentziek gobernatu behar zuten, horixe jasotzen zuen Palestinaren zatiketako oinarritzko planak, hiriaren garrantzia eta sinbolismoa kontuan hartuta. Ez zen inoiz gauzatu nazioarteko mandatu hori, ordea, nahiz eta Hiri Zaharraren inguruko lurrak lurralde desmilitarizatu bihurtu; hain zuzen ere, AEBek Israelen duten enbaxada lur zati horretan dago.

“Guztiz ezinezkoa da palestinarrek Israelen eraikitze baimenik lortzea, horrek zailtzen du Palestinako familiek Ekialdeko Jerusalemen bizi ahal izatea”

Mounir Marjieh

1967a izan zen hurrengo kolpe handia, eta harrezkero palestinarren biziak atzera ezinezko itzulua eman zuen. Sei Eguneko Gerra delakoa gertatu zen, “Israeliek Zisjordia eta Gaza okupatu zituen, eta beste zenbait lurralde arabiar ere”, dio Marjiejh. *Okupatu* dio pa-

lestinarrak, “lurralde bat gerra egiten ari den aktore baten mende geratzen denean lurralde okupatu gisa ulertzen duelako nazioarteko legeak”. Okupatutako lurralde horietako bat da da Ekialdeko Jerusalem. Hori horrela, 1967ko mugak ez dituzte aitortzen nazioarteko erakundeek, “Nazio Batuen Erakunde-ko Segurtasun Kontseiluko ebazpenak daude. Nazioarteko kontsentsua dago lurralde horiek okupatuta daudela onartzeko”, dio Marjiejh.

Handik hamahiru urtera, 1980an, Israeliek azken pausoa eman zuen Jerusalem, eta ilegalki okupatutako ekialdeko lurrak anexionatu zituen. “Israeliek alde bakarrez erabaki zuen Jerusalemetik ekialdera zeuden 70,5 kilometro karratu anexionatzea, bere lurralde subirano gisa. Hori ilegala da”, dio Marjiejh.


BATAILA DEMOGRAFIKOA

Erreportajearen hasieran, Marjiejh Israelgo Gobernuaren bi politika aipatu ditu: bata, okupatutako lurraldea ahalik



Mounir Marjieh ARGIArako elkarrizketan.

Jerusalem 1967 aurretik eta gero



- Israeldarren asentamenduak
- Palestinako kokapena
- Jerusalemgo Udalaren mugak

eta handiena eta batuena izatea; eta, bestea, demografian gehiengoa judutarra izatea. Hain zuzen ere, Israelek izandako bigarren bataila handiena izan da demografiarena, palestinarren eta israeldarren arteko oreka haustearena. Lehen kolpea jo zuenean, 1948an, muturreko neurriak jarri zituen mar txan, jendea masiboki kanporatu zuen beren etxeetatik. Baina 1967an egoera ezberdina zen, NBEk 1948ko mugak aitortuak zituen, baina hortik aurrerakoak "okupatuta" zeudela iritzi zion; beraz, Israelek ezin zuen bi hamarkada aurretik egin zuen gauza bera egin.

Beste arazo bat ere bazuten sionistek. 1948an egindako kanporaketa masiboen ondorioz, palestinarrak gutxiengoak ziren Israelen, baina Zisjordanian eta Gazan gehiago ziren. "Israelgo mugen barruan geratu ziren palestinarrei emandako herritartasun mugatuak bat egiten zuen Israelen gehiengoa judutarra izatearen helburarekin, baina ez litzateke hori gertatuko Zisjordanian eta Gazarekin", dio Pappék. Horrela, bada, nazioarteko presioak ekiditeko eta bataila demografikoan irabazten jarraitzeko, Gaza eta Zisjordanian okupatu zituzten, baina ez anexionatu, Pappéren hitzetan: "Lurralde horietako biztanleak ezin ziren kanporatu, baina ezta estatu judutarreko biztanle bihurtu ere, beren kopu-

ruak eta hazkunde potentzialak kolokan jarriko bailukete Israelgo gehiengo judutarra".

Israelgo politikek horrela jarraitu zuten harik eta 1995ean Osloko Bake Akordioak sinatu zituzten arte. Hurrezkero, pauso bat gehiago eman, eta Zisjordanian gaineko kontrola formalizatu egin zuten. Zisjordanian hiru eremutan zatitu zuten, lurraldearen %70 Israelen kontrolpean uzteraino. Horrela, bada, demografiaren garrantzia are handiagoa bihurtu zen, biztanleria palestinarra azkarrago hazten baitzen.

Ekialdeko Jerusalemgo kasuan, Israelek "bultzatze eta erakartze politikak" ezarri zituen, Marjehren hitzetan: "Bultzatze faktoreak dira palestinarrak hiritik botatzeko diseinatu zituztenak, eta erakartze faktoreak dira kolono judutarrak lurralde horietara ilegalki bizitzera joateko diseinatu zituztenak".

Bultzatze faktoreak dira, Marjehren hitzetan, erresidentzia irakunkorerrako baimena, Ekialdeko Jerusalemgo palestinarrak ez baitaukate herritartasunik: "Baimen hori duen Jerusalemgo palestinarrak batek erresidentzia mantendu dezake bere bizitzaren erdigunea Israelen dagoen bitartean, Jerusalem barne, Israelek bere nazio subiranotasunaren barne hartzen baitu hiria". Beraz, bere bizitzaren "erdigunea" Israe-

"Akziodun kritikoak"

Marjeh ez da CAFeko akziodunen batzarrean egon den iritzi kritikodun bakarra. Amnesty Internationaleko bi kidek ere parte hartu dute batzarrean: Cecilia Denis Amnesty Internationaleko Enpresen taldeko kidea eta Sofia García Arana EAEko Amnesty Internationaleko koordinatzailea izan dira batzarrean. Parte hartu dute horretarako eskubidea dutelako, akziodunak direlako, "akziodun kritikoak". Alegia, enpresako akzioak erosten dituzte, eta horrela bertan berba egiteko eskubidea lortzen dute.

Netanyahutaz eta bere gain dagoen atxilotze aginduz galdetu die Denisek Administrazio Kontseiluko kideei: "Pertsona anker horren intenzioak zuritzen jarraituko duzue?". Horrez gain, CAFi aurpegiaratu dio ez dituela nazioarteko erakundeek egindako ebazpenak errespetatzen, nazioarteko zuzenbideak ez baititu onartzen Israelgo koloniak, eta CAFek, hain zuzen ere, horiek elkarren artean lotzeko asmoa baitu. Azkenik, Denisek gogorarazi du zenbait inbertsio-funtsek CAFekin negozioak egiteari utzi diotela, eta horren aurrean neurriren bat hartuko duten galdetu du.

Aranak okupatutako Zisjordanian ugaritzen ari den indarkeria izan du berbagai, "kolonoen eskutik eta gobernuaren babesarekin". Bere hitzetan, CAFen tranbiak Ekialdeko Jerusalemgo kokalekuak areagotuko ditu, eta, ondorioz, palestinarrak baztertuko ditu. Hori kontuan hartzen ez duela aurpegiaratu dio CAFi. Azkenik, azaldu du Amnesty Internationalek iritzi diola CAFek beharrezko baldintzak betetzen dituela NBEren Giza Eskubideen Kontseiluak sortutako okupazio ilegalekin onurak ateratzen dituzten enpresen zerrendan sartzeko, bere bazkide Shapirren bidea jarraituz.

len dagoela frogatu ezin duenak, bertan bizitzeko baimena galtzen du: “Horrela, Israeliek lortu du Jerusalemgo 14.800 palestinar baino gehiago botatzea Jerusalemetik”. Horrez gain, palestinarren etxeak botatzen dituzte, ez diete ematen baimenik etxeak eraikitzeko: “Guztiz ezinezkoa da palestinarrek Israelen eraikitzeko baimenik lortzea, eta horrek asko zailtzen du Palestinako familiek Ekialdeko Jerusalemen bizi ahal izatea”.

Egoera horri gehitzen zaio azpiegiturretan inbertsiorik ez egitea: “Palestinarren eremuetan bizitzea oso zaila da, ez da inbertsiorik egiten bertan, ez dago udal zerbitzurik, eskoletara ez da dirurik bideratzen... Faktore horien guztien baturak eragiten du palestinarrek Ekialdeko Jerusalemetik alde egitea”.

Egoera horrekin parez pare daude israeldarrentzat jarritako baldintzak, “erakartze faktoreak”. Etxebizitzetarako dirulaguntzak, eta zerga salbuespenak dituzte: “Bost urtean israeldar kolonoek ez dute zergarik ordaindu; hamarkadatan jaso dituzte zerga salbuespenak, kolonietan bizi daitezen”, azaldu du Marjiek. Azpiegiturretan ere inbertsioa handia da. Horien artean, CAF eraikitzen ari den tranbia.


“INPUNITATEA”

Testuingurua ikusita, beraz, Israeliek Ekialdeko Jerusalemen duen politika legez kanpokoa dela ondorioztatu daiteke. “NBEko Segurtasun Kontseiluak ebazpen ugari onartu ditu Israeli ane-xioa bertan behera utzi dezan eskatzeko”, azaldu du Marjiek. Horrez gain, Israeliek Ekialdeko Jerusalemen hartutako edozein legezko edo administrazioko neurrik baliorik ez duela ere onartu du kontseilu berak, okupazioan oinarritzen den erregimena den heinean.

Testuinguru horretan ari da CAF tranbia eraikitzen. “2019an, CAF Jerusalemgo tranbiaren proiektuan sartu zenean, oso ondo zekien non ari zen sartzen: BDZ Euskal Herria plataformatik jakinarazi genion kontratu hori legez kanpokoa zela”, azaldu du Richard Weyndling BDZ Euskal Herria plataformako kideak. BDZk soilik ez, CAFeko langile komiteak ere eskatu zion enpresari proiektu horretan ez sartzeko.

Weyndling Marjiekerekin dago, Euskal Herrian dagoen bitartean gida lanak egiten dizkio. Marjiekere hizkera bera darabil, eta berak ere salatu du proiektuak ilegalki okupatutako lurraldeen batura beste helbururik ez duela:

JLRren tranbiaren lineak



“Tranbia hori Israelen planen parte da palestinarrek Ekialdeko Jerusalemetik kanporatzeko eta Jerusalem osoa Israelen parte bihurtzeko, bere hiriburu banaezin gisa; eta gero gainontzeko lurraldeak ere okupatzeko plana du”.

BDZk 2019an CAFi proiektuan ez sartzeko eskatu zionean, beste enpresa baten adibidea jarri zion: “Jakinarazi genion Veolia multinazional frantsesak izan zuela kontratu hori bere aurretik, eta bertan behera utzi zuela nazioartean izan ziren protestengatik”. Veoliak soilik ez, Kataluniako Comsa enpresak ere izan zuen kontratua JLRrekin: linea urdina eraikitzeko leihaketa irabazi zuen –CAF ere aurkeztu zen, baina Comsak irabazi zuen– 2.200 milioi euroko kontratua eskuratu zuen 2022an.

Baina 2024an bertan behera utzi zuen kontratua “Gazako krisiagatik”.

2020tik ari da BDZ Euskal Herria tranbiaren aurkako kanpainan, eta urteotan erantzunik izan badu ere, Gazako sarraskiak alarma guztiak piztu eta erakundeak esnarazi dituela dio Weyndlingek: “Palestinarren genozidioa gertatu behar izan da klase politikoak ulertzeko beren isiltasunak eta gelditasunak inpunitate sentsazioa eman diotela estatu sionistari; eta horrek eragin duela Gazan ikusten ari garen genozidioa”.

Alderdi politiko gehienek aldetik “konpromisoa” ikusten ari dela dio, eta ulertu dutela neurriak hartu behar direla “CAF apartheidaren trenetik” jais-teko; are, CAFek obra publikoetan par-



Mounir Marjeh CAFera sartzen.

te hartzea edota dirulaguntzak jasotzea saihestu behar dela dio, "nazioarteko legearen eta giza eskubideen urraketan konplize" delako. Nafarroako Parlamentuak eman du dagoeneko pausoa, eta ekainaren 5ean ebazpen bat onartu zuen, Marjeh legebiltzarrean zela. "Nafarroako eta Espainiako Estatuko gobernuei eskatzen zaie obra, zerbitzu, erosketa publiko eta dirulaguntzetatik kanpo utz ditzaten genozidio-ekintzak errazten dituzten jardueretan parte hartzen duten pertsona juridikoak", zioen ebazpenak.

BOIKOTAREN BIDEA

"Jendeak baleki zergetan ordaindutako dirua bideratzen dutela Israelen garbiketa etnikoaren parte den ariketa batera, ikaratu egingo litzateke", dio BDZko kideak. Zentzu horretan, erakunde zein norbanakoen boikota ezinbestekoa dela uste du Weyndlingek. "Ezin dugu Hegoafrikako kasua ahaztu. Hegoafrikako apartheidak ez zen bere kabuz amaitu: nazioarteko komunitetetik isolatu zuten, eta horrek eragin handia izan zuen erregimenean; baita apartheidaren amaieran ere", gehitu du Marjehk.

Horrela, eta Euskal Herriko kaleetan dauden Palestinako banderen kopurua ikusita, Weyndlingek argi du zer egin

"Jendeak baleki zergetan ordaindutako dirua bideratzen dutela Israelen garbiketa etnikoaren parte den ariketa batera, ikaratuko litzateke"

Richard Weyndling

behar den: presioa. Zelan? Mila modutan. "Boikotari dagokionean, Carrefourren aurkako kanpaina egin dugu, kolonia ilegalean produktuak saltzen dituelako eta Gazako genozidioa egiten ari ziren soldaduei jatekoa eman zielako doan". Baina bestela ere beste mila aukera daudela dio: "Kalera atera, manifestazioetan parte hartu, egunkarietara gutunak idatzi, sare sozialetan aktibo ibili..."

CAFeko atetik sartu eta ordu eta erdira, kanporako bidean da Marjeh, "Israel hiltzaile, CAF laguntzaile" oihu artean atera da CAFen egoitzaatik. Am-

nesty Internationaleko eta CAFeko zenbait langilek egindako pankarten artetik egin du bidea, BDZ Euskal Herriko kideengana zuzen. "Gogorarazi diet Nazioarteko Zigor Auzitegiak ebatzi duela Israelen okupazioa legez kontrakoa dela eta, beraz, NBEko kide diren estatuek ezin dituztela lurralde horiek aitortu eta ezin dutela eman laguntzarik okupazio ilegala mantentzeko".

Egoera zertxobait "tentsoa" izan dela esan du Marjehk, baina galderari erantzun diotela. Andres Arizkorreta CAFeko lehendakariak Ekialde Hurbileko egoerari zuzendu dizkio hitz batzuk: "Kontatu duzuen egoera amaitu dadin nahi du CAFek, eta herrien arteko behin betiko bakea heldu dadila". Adierazi du enpresak giza eskubideen arloan duen erantzukizuna "oinarritikoa" dela CAFentzat, eta zentzu horretan "egoki" aritu direla. ●



Ikusi erreportajea bideoz, hemen:



Umandi ikastolak 50 urte

Euskara, bizikidetza eta berrikuntza pedagogikoa ardatz

Gasteizko Umandi ikastola duela 50 urte sortu zuten hainbat familia aski ausartek –herri ekimena, orduan ere–, euskararen transmisioa ardatz hartuta. Mende erdia joan da, ikastola hazi egin da, belaunaldi berriak hezi ditu ez gutxi, komunitate baten erreferente ere bihurtu da. Urteurrena ospatzeaz batera, etorkizunari begira ari da.

 MIEL A. ELUSTONDO

Umandi ikastolako zuzendari Maribi Sanchez eta ikastolako irakasle ohi Belen Arrondo ditugu berriemaile. Atzera begira jarri garen orduko, Arrondok hitza hartu eta bizi-bizi kontatu ditu ikastolaren historiari dagozkion xehetasunak: “Ikastola honek 1975eko martxoan ireki zituen ateak. Bederatzi ikasle eta irakasle bat ziren orduan. Frankismoaren azken urteak ziren eta Gasteizen giro erdalduna zen nagusi. Euskara oso gune zehatzetan baino ez zen erabiltzen, baina zenbait jendek euskara ikasteko gogoaz zeukan”. Eta, dudarik gabe, gogo horretatik sortu zen ikastola, Gasteizen lanean ari zen Lantzale kultur taldearen bihotzetik, Arrondok esan digunez: “1974an Lantzaleko zenbait kide Umandi ikastola sortzeko proiektua lantzen hasi ziren beste pertsona batzuekin. Zailtasunak izan zituzten, jakina”. Besteak beste, eraikina behar zuten, finantzazio iturriak, baimena, helburuak zehaztu...

“Ez zen erraza!”, borobildu du Umandi ikastolako irakasle ohiak.

Belen Arrondo, ikastola sortu eta laster hasi zen bertan lanean, 1977an 20 urte zituela. “Irakasle ikasketak amaitu eta berritan. Ikastolan lanean hasi baino lehen, hala ere, proiektua ezagutzeko aukera izan nuen, saltsa horretan sartuta zebilen bikote baten semeari euskarazko eskolak ematen nizkiolako arratsaldeetan. Garai hartan, ikastola Jose Lejarreta kalean zegoen. Lau ikasgela ziren, irakasle banarekin”. Gaztea, Arrondo. “Oso gaztea, eta izugarri motibatu ninduen ikastolaren ideiak, eta irakasle izateko aukeratu nindutenean, ez nuen zalantzarik izan”. Bertan hasi zen lanean, eta hantxe egin zuen laneko biderik handiena.

IKASTOLAK GASTEIZEN

Umandi ikastolaren sorrera ez zen kasu isolatua izan, haatik. Garaian, beste zenbait ikastola abiarazi zituzten Gasteizen. Aurretik, martxa hartua zuen Olabide

Ikastolak. 70eko hamarraldiaren erdi aldera, berriz, diputatu nagusi Jose Lejarreta zela, Euskara Zerbitzua eratu zuten, Ikerne Oiertzabal buru. Bertatik bertara bizi izan zuen aldi hura, eta ari zaigu Arrondo: “Umandi sortu zenean, Olabide ikastolak hamarren bat urte zeramatzan lanean eta, garai hartan, euskaraz ikasteko erreferente nagusia zen Gasteizen. Bestalde, 70eko hamarkadaren erdi aldera, diputazioak ikastola bat ireki zuen Gazalbide auzoan. Ondoren Duranara eraman zuten, eta oraingo Ikasbidea ikastola dugu. Sasoi hartako beste ikastola batzuk, Umandi ikastolaren aldi berekoak, Barrutia ikastola –hasieran, Ehari izena izan zuen–, edota Toki Eder”. Lejarretak eta Oiertzabalek diputaziotik bultzatutako proiektuak, aspaldi gauzatuak, indarrean gaur ere.

Arabako Diputazioaren ekimena gorabehera, oharra egin digu Arrondok: “Umandi ez zen kokatu diputazioak zabalduetako esparruan, eta kooperatiba izan zen 1993an Eusko Jaurlaritzaren



Ezkerrean, Belen Arredondo Umandi ikastolako irakasle ohia, eta eskuinean, Maribi Sanchez ikastolako zuzendaria.

esku gelditu zen arte. Urte hartan, Euskal Eskola Publikoaren Legea onartu zen, eta Umandi ikastola publiko bihurtu zen". Publiko izateko bokazioa izan baitzuen sortze beretik Umandi ikastolak. Horrekin batera, bazituen bestelako helburuak ere: "Euskarari bultzada ematea Gasteizen, umeak euskaraz eskolatzea, pedagogia berri eta aurrerakoia, laikotasuna...". Printzipio horiei helduta jardun dute Umandi ikastolan joan deneko 50 urtetan.

Jose Lejarreta kalean izan zuen lehen egoitza. Txalet moduko etxez egina da kalea. Hiru etxe ere izan zituen ikastolak garaian; haietako bat, Gasteizko Estibalitz etorbidean. Baina ikastola honek ibilia 1975ean Lejarreta kalean hasita ere, 80ko hamarkadaren hasieran oraingo Lakua-Arriaga auzora lekualdatu zen. Gogoan du Arrondok: "Hona iritsi ginenean oso etxe gutxi zeuden auzoan eta, lehenengo, oraingo Padre Orbiso ikastetxean izan genuen egoitza, geure behin betiko eraikina egiten

"Zenbat belaunaldik ikasi dute euskaraz Umandin? Auzoko erreferente bat izan da gauzak egiteko moduagatik"

Maribi Sanchez
Zuzendaria

zuten bitartean. Arazo handia izan zen eraikinarena. Hori gabe ez zegoen aurrera egiterik. Askok borrokatu ginen instituzio guztien aurrean ere, behin betiko eraikina izatea lortu genuen arte. Oso urte bereziak izan ziren, dena zen eginkizun, baina ideia asko genituen, baita ausardia eta gogoia ere gure ikas-

tola aurrera eramateko". Garai beroa, Arrondok dakienez: "Kontuan izan behar da 1975eko azaroan Franco hil zela, 1976ko martxoaren 3an Gasteizen bost langile hil zituela Poliziak, fabriketan greba gogorak izan zirela, asanblada beroak... Trantsizio izeneko garaia zela". Eta horrek, nahitaez, eraginik izan zuen Umandi ikastolaren proiektuan. "Dena nahi genuen aldatu, mugimendu pedagogikoen sorrera izan zen, Euskal Herrian Adarra pedagogi erakundea sortu zen, euskarari bultzada nabarmena eman nahi genion... Eta, esate baterako, hasierako urte haietan, mehatxuak ere jaso genituen Umandiko irakasleek". Belen Arrondok esana, garai bateko giroa zertan zen erakutsiz.

ZAILTASUNAK GOGOAN

Lehen ere esan du Belen Arrondok: ez zen erraza izan. Eta ikastolako lehen egunak gogoratzearekin batera, sentipen bat datorkio: "Urduritasuna. Ikasketak amaitu eta 2 urteko umeekin



hasi nintzen lanean –batzuek ez ziren 2 urtekoak ere!–, eta oso baliabide gutxi nituen. Espazioa ere ez zen oso handia, eta gasolio-galdara ere ikasgela barruan zegoen; txiza-oihalak aldatzeko, berriz, gelatik irten behar ginen”. Eta, orduan? “Ilusioa genuen, eta gure arteko giroa oso zen ona, elkarlana ere apartekoa, baita familien laguntza eta konfiantza ere, eta horiek denek beste guztia gaintitzen laguntzen zuten. Ordu asko sartzen genituen, hasieran autobus-zerbitzuaz ere geu arduratzen ginen, batzar asko egiten genituen, eta gurasoei euskarazko klaseak eman ere bai. Bestalde, metodologia zehaztu genuen, euskara landu, materiala prestatu... Hasiera bizia eta zoragarria izan zen”. Arrondoren oroitzak.

Eta oztopoak, nahi beste oztopo beti bidean: “Ez zegoen dirurik, eta batzuetan zailtasunak izaten ziren hileko soldata jasotzeko. Hasierako irakasleek, hainbat urtez ere, ez zuten gizarte segurantzarik kotizatu; horixe da Lourdes Ugaraberen kasua adibidez, ikastola honetako lehen irakaslearena. Hainbat urtez ‘baskide babesleen’ laguntza izan genuen, hau da, hilero kuota bat ordaintzen zuen jendea genuen, asko Lantzale kultur taldeko ki-deak. Gurasoen kuotak eta baskide haien diru-aportazioak izan genituen sustengu. Beste oztopo handi bat ikaslearen liburuxka ofiziala izan zen. Hasieran, baimenik ez genuen izan, eta beste ikastola batek egiten zigun tramitea”. Eta Arrondok, hala ere: “Oztopo guztien gainetik, proiektuak merezi zuen”.

“Egunero saiatzen gara ikasleak motibatzen, bideak asmatzen euskara erabil dezaten. Ez da erraza, hala ere!”

Belen Arrondo
Irakasle ohia

IKASTOLA, EGUN

Atzotik gaurra, ikastolako zuzendarri Maribi Sanchezek hartu du hitza. 18 urte dira Umandi ikastolara heldu zela. Proiektuaren ardatzak azpimarratu nahi izan dizkigu: “Euskara, bizikidetzatza positiboa eta berrikuntza pedagogikoa. Horiexek ziren, eta izaten jarraitzen dute gaur egun, gure ardatzak. Baina kontuan hartu behar da gizartea aldatu egin dela, eta horrek egoera eta ikasle/familia profila moldatzea eskatzen digula”. Eta hori esanik, txanda hartu dio Belen Arrondok: “Ardatzak eta funtsezko helburuak bere horretan dira, baina garaian-garaian egokitu behar dira. Horrela izan da eta horrela egin dugu lan 50 urte hauetan. Hasieran, ikastolara etortzen ziren umeak eta gurasoak euskararekin oso motibatuta zeuden, parte-hartze nahiko handia zegoen. Urteetan zehar egoerak,

familiak, ikasleak aldatuz joan dira, eta lehengo helburu berak betetzeko bestelako tresna eta moduak bilatu behar izan ditugu. Esaterako, une honetan, aipatzekoa da kanpotik etorritako ikasle eta familien kopurua gora ari dela, eta horrek egoera berrira egokitzea eskatzen duela, baina batez ere eskatzen du baliabide nahikoak izatea ikasle guztiei euskara, kultura eta ikasketak bermatzeko. Erronka handia da”, Arrondok.

Euskararen erabilerari eragitea bezain erronka handia, inondik ere. Eta hortxe da kultur transmisioa ere. Jakitun dira ikastolan, Maribi Sanchezek esan digunez: “Betidanik aldarrikatu dugu ikastola hau euskal kultura transmititzeko eskola ere badela. Folklore aparta, saiatu gara gure antzinako ohiturekin zerikusia izan duten ospakizunak gure ikuspegitik transmititzen, modu zabal eta malgu batean; erlijioaren ikuspegia lausotuz, adibidez. Eskola-ordutegian eta egutegian ageri diren kultur ospakizunetan eta bestelako zenbait elkartetatik heltzen zaizkigun jardueretan parte hartzen dugu”. Eta Arrondok erantsi: “Ziurrenik egiten dena ez da nahiko, kontuan izanda familia batzuek ezin dutela transmisio funtziorik bete, ez dutelako ezagutzen. Era askotako familiak ditugu oraingo ikastetxeetan eta horrek esfortzu berezi bat eskatzen dio eskolari. Eta, egia esan, hedabideek, sare sozialek eta gainerakoek ere ez dute transmisio horretan askorik laguntzen”. Jaso dugu mezua, geuri dagokigun parteak, bederen.



“Bateratze-prozesu batean murgilduta gaude. Umandi ikastola definitzen zuten printzipioei eustea izango da gure helburua”

Maribi Sanchez

Zuzendaria

Besterik ere badio Arrondok, zuzendariaren esanak osatze aldera-edo: “Bai, gauzak egiten dira, batzuk ospakizunei lotuta, beste batzuk ikasgaietan curriculumean txertatuta daudenak, baina oraindik bide luzea dugu egin beharrekoa”. Behin ere bukatzen ez dena, beharbada.

Eta, beti-betikoa, euskararen erabilera auzi eta zio. Arrondok heldu dio galderari: “Ikastolan, irakasleen artean euskara da komunikaziorako

hizkuntza, bai lan-tresna eta bai ikasleekin erabiltzen den hizkuntza ere. Bestelakoan, inoiz ez da erraza izan ikasleen arteko komunikazioa euskaraz izatea, beti egon da nolabaiteko borroka. Egun, zailagoa da gelatik kanpo euskararen erabilpena gauzatzea, baina egunero saiatzen gara ikasleak motibatzen, bideak asmatzen euskara erabil dezaten. Ez da erraza, hala ere”. Gauza jakina da, alegia, kalea ere gaztelaniaz mintzo denean gutiz gehien.

GAURTIK BIHARRERA

50 urte igaro dira. Mintzatu zaizkigu atzokoaz, biharrera begira jartzeko garaia dugu. Maribi Sanchez zuzendaria da hitzaren jabe: “Auzoan dagoen ondoko ikastetxearekin [Padre Orbiso] bateratze-prozesu batean murgilduta gaude. Horrek aldaketa nabarmenak ekarriko dizkigu. Hasteko, beste izen bat adostu behar izan dugu. Baina Umandi definitzen zuten printzipioei eustea izango da gure helburua”. Belen Arrondok lehenik balorazioa egin nahi izan du: “Atzera begiratu, eta ikusten duguna izugarria da. Hor dira beti zailtasunak, oztopoak eta akatsak, baina egindakoa oso garrantzitsua izan da, eta izaten ari da. Zenbat belaunaldik ikasi dute euskaraz Umandin? Auzoko erreferente bat izan da gauzak egiteko moduagatik, pedagogia sendo eta berritzaileetan oinarritutako metodologiagatik, eta abar”.

Eta bi ikastetxeak bateratzeaz ere badakar hitzik Arrondok: “Maribik [Sanchez] esan duena, orain Jaurilaritzak batu egingo dituela Umandi ikastola eta Padre Orbiso eskola. Aurrerantzean, izena ere ez da Umandi izango [‘Arriagako haritza’ izango da]. Hala ere, 50 urte hauen antolaketan gabiltzanak, ikastolan lanean ari garenok, eta irakasle edo guraso ohiek espero duguna, eta nahi duguna, da orain arteko ibilbideari jarraipena ematea eta hobetzea”. Ahal baldin bada, alegia.

Baina hori bestek esan beharko du, hemendik hamar edo hiru urtera... ●

50 urte eta gero, orain fusioa

Iragan abenduaren 17an irakurri genuen albistea ARGIA n bertan. Mikel Garcia Idiakez genuen berriemaile, eta behar bezalako lerroburua asmatu zion berriari: *Nola egiten da bi ikastetxeren fusioa?*. Orduantxe jakin genuenez, Jaurilaritzak zenbait ikastetxeren fusioak aginduak zituen Gasteizen: Adurtza-San Ignacio, Santa Maria-Landazuri eta Umandi-Padre Orbiso ikastetxeena, alegia.

Umandi Ikastolak 50 urte bete dituen garaian, hortxe dira Garcia Idiakezek egindako galderak: “Zerk motibatuta bultzatzen da bi ikastetxeren arteko fusioa? Nola uztartu norbere eskola-proiektua, eredia eta ibilbidea ondokoarekin? Zein da bidea bi eskoletako hezkuntza komunitateak ados jartzeko? Zein da Eusko Jaurilaritzaren rola?”.

Eta, aukeran, galdera gehiago, Garcia Idiakezi mailegutan hartu dizkiogunak: “Eskola gutxiago eta handiagoak (makroagoak) dira benetan bidea hezkuntza proiektuak hobetzeko? Baliabide pertsonalak mantenduko dira hurrengo urteetan? Plaza eskaintza ere mantenduko da? Ala pixkanaka, sindikatuak susmatu moduan, irakasle eta langile kopurua txikitzen, plaza kopurua gutxiagotzen, eta ondorioz eskola publikoaren sarea murrizten joango da? Zenbat eta nola hartuko dute parte hezkuntza komunitateek? Prozesua benetan parte-hartzailea izango bada, zein rol hartuko du Hezkuntza Sailak eta nola bideratuko da bi ikastetxeetako hezkuntza komunitateen adostasuna? Adibidez, bi hezkuntza proiektu, pedagogia eta eredu ezberdin dituzten eskoletan, zein gailenduko da? Edota osotasunean D eredia duen ikastetxea B eredia ere baduen ikastetxearekin elkartzean, zein izango da eskainiko den (edo diren) hizkuntza eredia(k)? Espazioak birplanteatuko dira? Azpiegiturak egokitu eta berritze-ko baliatuko da aukera?”

BABESLEA:



“ ”

Euskararen bidez Euskal Herriko egoera politikoa ulertu nuen

Teresa Zavaleta

Argentinarra da, baina sustraiek errotzen dute. Euskararekin maiteminduta dago, 25 urterekin ikasten hasi zenetik. Arbasoetako batzuk Euskal Herrikoak zituen, Soraluze-koak eta Azagrakoak, eta bizpahiru urterekin hasi zen Arrecifeseko Euskal Etxera joaten; arbasoa sortzailleetako bat izan zen, eta familiak bertan parte hartzen zuen duela

103 urte zabaldu zenetik. Dantzaren bidez euskal soinu eta erritmoek gorputza laztandu zioten, baina euskararen bidez sakonago ulertu ahal izan zuen Euskal Herriaren historia, kultura eta politika. Maiaztaren hasieratik Lekeition egon da hilabetez, jubilatutako ondoren euskararen eta euskal munduan murgilketa egiteko eta ikasten jarraitzeko.

 GARAZI BASTERRETXEA BAREA  PELLO MAUDO / ARGIA CC BY-SA

Nola heldu zinen euskarara, edo nola heldu zen euskara zugana?

Unibertsitatea bukatu nuenean hasi nintzen euskara ikasten. Gurasoek ez zekiten euskaraz. Aitak hitz zikinak, beste hitz gutxi batzuk eta pare bat abesti baino ez zekizkien. Politikaren aldetik ere ez genuen askorik ulertzen. 25 urterekin euskaraz ikasten hasi eta identitatearen eta independentziaren nahia ulertzen hasi nintzen. Euskararen bidez Euskal Herriko egoera politikoa ulertu nuen. Euskararekin maiteminduta nago. Euskalduna bazara sakonago ulertzen duzu Euskal Herria, ikasleen artean ere konturatzen naiz. Lehenago dantzariaren esperientzia

nuen, ikurrak ezagutzen nituen, baina beste kapa asko falta zitzaizkidan: kultura eta hizkuntza.

Dantzaria zinenean eta oraindik euskaraz ez zenekienean zer pizten zizuten gorputzean doinu eta erritmo horiek?

Ikurrina ateratzean eta *Euzko Gudariak* abestean maitasuna pizten zitzaidan, eta oraindik ere gertatzen zait. Dantza izaten da askotan medioa euskal etxearekin harremana izateko, baina euskara beste pauso sakonagoa da. Euskarak kulturaren sartu ninduen eta askotan beldurra ematen dit jendea hor bakarrik geratzea: fol-

klorean. Ez da erraza dantza taldeetan dagoen jendea euskara ikastera animatzea, poliki-poliki ari gara, ez ikaratzeko. Erronka handia da.

Lekeition egon zara maiatzean. Dantzari Eguna bizi izan zenuen bertan...

Eta dantzatu genuen. Ilobak etorri ziren Argentinatik; ahizpa urtearen hasieran hil zen eta omenaldi bat egin nahi genion, bera ere dantzaria zen eta ilobak ere bai. Une batean 30 kaxarranka ikusi genituen! Oso berezia izan zen niretzat bertan egotea eta ilobekin eta herriko jendearekin plazan dantzatzea, guztiok



elkarrekin. Gure Euskal Asteaz gogoratu ginen, igandez festa erraldoia egiten dugu eta ederra da, jendez betetzen da, eta dantzatzeko gogoia pizten dizu.

Arrecifeseke Euskal Etxekoaz gain, Buenos Aireseko Euskaltzaleak izeneko Euskal Etxearen parte ere bazara. Zergatik aukeratu zenuen espazio hori Buenos Airesera bizitzera joan zinenean?

Klaseak ematen hasi nintzenean, orain dela 33 urte, Euskaltzaleak beste leku batean zegoen, Laurak Bat Euskal Etxearekin. Baina 2005ean handik alde egin genuen desadostasunak izan genituelako, eta zazpi urte geroago espazio bat erosi genuen klaseak eman ahal izateko. Txikia da, baina jende handiz beteta dago, lagun taldea gara eta euskara zabaltzea da gure helburu nagusia. Hori egiteko hainbat ekintza egiten ditugu, adibidez, zine topaketak, hitzaldiak, dantzak eta abesbatza. Adin guztietako pertsonak gaude, lehen jende heldu gehiago zegoen, arbaso euskaldunak zituzten haiek. Orain unibertsitateko jendea ere etortzen da, hizkuntza aurre-indoeuroparra izateak jakin-mina sortzen dielako, adibidez. Euskaltzaleak-eko jendearekin nagoe-nean nire kuadrilla direla sentitzen dut, oso eroso sentitzen naiz, etxean bezala.

“ ”

Kulturak, historiak eta antropologiak asko laguntzen dute euskara ikasten

Eta lantzen ditugun gaiak beti izaten dira gai sozialak. Gatazka askotarikoek lekua dute euskal etxean. Gaixorik zeuden preso politikoei ere idatzi genien, ikasleekin batera. Postalak egin genituen espetxeetara bidaltzeko, adibidez, postal batean 'askatasuna' hitza idatzi genuen euskaraz zein Argentinako jatorrizko hizkuntza guztietan. Oso hunkigarria izan zen sortu zena, bai idaztean, baita erantzunak jasotzean.

Azalduko diguzu zer den Argentinan euskaraz programa?

Duela 35 urte Eusko Jaurlaritzak Macachínen abian jarritako egitasmoa da. Bi irakasle bidali zituzten barnetegi bat egiteko. Bi hilabete eta erdi egon ginen. Urteak pasa ahala handik sortu zen Eus-

kara Munduan proiektua, eta ondoren mundo osora zabaldu zen. Hemengo erakunde batekin bideratu zen hasieran: Aurten Bai. Gero HABEk eta FEVAk [euskal etxeen federazioa], eta gaur egun Etxepare Institutuak bideratzen du, beti FEVArekin, noski.

Barnetegi horietan bildu gintuzten eta formakuntza jaso genuen. Garai hartan ez zegoen Internetik. Nik A2 inguruko maila izango nuen. Ondoren, Lazkaora joan ginen eta bertan formakuntza jasotzen jarraitu genuen. Eskolak hartzen genituen udako oporretan eta neguko bi astetan, eta urtean zehar eskolak ematen genituen. Hasieran Miren Josu Uriarterekin materiala prestatzen genuen.

Uriarte Macachíneko bi irakasle horietako bat da, ezta?

Bai. Ordiziako Gurutze Arrieta ere joan zen eta lehen barnetegia antolatu zuten. Miren Josu bi urtez aritu zen klaseak emateko materiala eta beste antolatzen, gure laguntzarekin, eta ondoren, HABEk hartu zuen proiektua. Geroago Lazkaoko irakasle batek, Jon Urdangarinek, materiala prestatu zuen eta *Euskara Munduan* sortu zen.

Materialaren kontua oso garrantzitsua zen. Euskara ikasten eta irakasten sei urte neramatzanean krisi bat izan nuen, ikusi

nuelako jendeari asko kostatzen zitzaio-
la. Historia irakaslea naizenez, euskara
ikasteko materiala historiako kontuekin
batu eta material berria sortu nuen. Kul-
turak, historiak eta antropologiak asko
laguntzen dute euskara ikasten, jendea ez
aspertzen eta askotariko gauzak ikasten.
Argentinan jende asko hasten zen ikasten
arbasoei zieten maitasunarengatik, baina
gero uzten zuten, ez zutelako denbora-
rik. Nik, batez ere, niretzat prestatu nuen
materiala, eskolak interesgarriagoak iza-
teko. Gaur egun Euskaltzaleak-en erabil-
tzen ditugu.

Orain ikasle asko dago? Zelakoa da egoera?

Arrecifesen eta Euskaltzaleak-en ematen
ditut eskolak, bi lekuen artean bizi naiz,
eta online ere aritzen naiz; orain, Eus-
kal Herrian nagoenez, goizeko ordu biak
arte. Talde ederra dugu Euskaltzaleak-
en, bost irakasle gara, eta gutariko hiruk
(Irenek, Cecik eta hirurok) 35 urte dara-
matzagu, Macachíneko talde horretakoak
gara. Harrigarria da mantentzea. Garrant-
zitsua da, nire ustez, maila duen jendeak
jarraitzea ikasten eta animatzea irakasle
izateko. Ikasketa-prozesua bete ondoren
jende askok uzten du eta garrantzitsua da
erabiltzen jarraitzeko espazioak manten-
tzea eta jakintza hori transmititzea, katea
ez etetea.

Nola sentitzen zara egiten duzuen lana kontatzen duzunean?

Oso harro sentitzen naiz eta oso baikorra
naiz, gero eta jende gehiago ari delako
euskara ikasten eta jende askok ikasta-
roetatik atera eta euskal etxean parte
hartzen duelako. Adibidez, gehien parte
hartzen ari diren batzuk Itziar Ituñoren
jarraitzaileak dira. Talde handia hasi zen
duela bost urte, boom-a izan zen. Euskal
jatorririk ez duten pertsonak dira, maila
handia lortu dute euskaraz, dantza tal-
deetan daude, elkartean laguntzen dute...
Bat, adibidez, irakasle izango da orain.
Trikipoteoak ere jende asko erakartzen
du, batzuetan 200 pertsona inguru bil-
tzen gara Buenos Aireseko San Telmo
auzoko Alde Zaharrean eta badirudi Eus-
kal Herrian gaudela. Oso garrantzitsua da
jende horrek etxe sentitzea espazio hau.
Oso giro atsegina sortzen da.

Online ikastaroak ere asko maite ditut;
Arrecifeseke online kurtsoan badaude
leku askotako ikasleak: Bariloche, Tre-
lew, Paraná, Puerto Madryn, La Pampa,
Santa Fe... Pandemiaren ondoren hasi
ginen. Euskal etxeetako jende asko dago



“ ”
***Trikipoteoak jende
asko erakartzen du,
batzuetan 200 pertsona
inguru biltzen gara
[Buenos Airesen]
eta badirudi Euskal
Herrian gaudela***

eta saiatzen dira gero eta gehiago sartzen
euskara euren espazioetan. Gauza horiek
maitemintzen naute eta indarra ematen
didate honetan jarraitzeko.

Historia irakasle izan zarela esan duzu. Nabaritzen da gustatzen zaizula irakastea.

17 urte nituenean hartu nuen historia
ikasteko erabakia. Militarrek Malvine-
tako gerra hasi zuten ingelesez aurka.
Eskolako azken urtean nengoen eta nire
adineko mutilak ikusten nituen gudara
joaten. Behin historia irakaslea egunka-
ria eskuan sartu zen ikasgelan, eta egun
hartan oso gauza garrantzitsu bat ulertu
nuen: gaur egungo egoera ulertzeko au-
rrekoa ezagutu behar dela. Horrek asko
hunkitu ninduen, *flash* bat bezala izan
zen. Eta historia ikasi nuen. Gero kon-
turatu nintzen irakastea nire bokazioa

zela, etengabe ari nintzen gauza berrien
bila, eta oraindik ere gertatzen zait eus-
kararekin. Euskal Herrian egon naizen
hilabete honetan ere gauza pila bat pre-
tatu ditut.

Diaspora hitza noiz sortu zen?

Lehen ez genuen erabiltzen, “euskal
migrazioa Argentinan” edo “euskal ko-
munitatea Argentinan” deitzen genion.
Duela hogeitaz urte inguru diasporaz hitz
egiten hasi ziren eta gaur egun erabil-
tzen da. Eusko Jaurlaritzak hautatu zuen
irailaren 8a diasporaren eguna ospa-
tzeko, Elkanok mundu bira amaitu zuen
eguna, hain zuzen ere. Ni ez nengoen oso
ados egun hori hautatzearekin, baina
munduko euskal etxeetan galdetu zuten
eta hori geratu zen. Arreta ematen dit
egun hori euskal etxeetan ospatzen dela
eta Euskal Herrian ez hainbeste, uste dut
hemen ere ospatu beharko litzatekeela,
eta kanpoan egiten dugun lana ezaguta-
razi eta aitortza egin.

Nola sostengatzen dira Euskaltzaleak eta Arrecifeseke Euskal Etxea?

Desberdintasunak daude beraien ar-
tean, baina orokorrean kideek kuota or-
daintzen dute, ekintzak prestatzen dira,
eta aretoak alokatzen. Eusko Jaurlaritzaren
laguntza oso garrantzitsua da. Eus-
kara klaseetarako urtero diru kopuru
bat bidaltzen digu, eta FEVak banatzen
ditu baliabide horiek. Gainerakoa guk
lortzen dugu pintxoak, kamisetak eta
bestelakoak eginez. Hasieratik guretzat
oso garrantzitsua izan zen irakasleei or-
daintzea, baina militantzia lan handia
dago. Ikasleei bekak ematen dizkiegu.



Ikasle jubilatuko asko ditugu eta bekak behar dituzte ikasi ahal izateko.

Jubilatuaren egoera zaila da une honetan Argentinan.

%50 galdu da erosteko ahalmena, inflazioa dago, baina jubilazioak izoztuta dago; eta gero eta zailagoa da jubilatzeak baldintzak betetzea. Lehen doakoak ziren sendagai batzuk orain ordaindu egin behar dituzte. 300 euro baino gutxiago kobratzen dute jubilatuko gehienek eta inflazioaren eraginez orain garestiagoa da Argentinan janaria erostea Euskal Herrian baino. Azken urte eta erdian izugarria izan da: jende asko kalean geratu da, alokairua partekatu behar izan dute... Gubernua murrizketak alderdirik ahulenetan egiten ari da. Asteazkeneko kalera ateratzen dira jubilatuek eta beste sektore batzuk batzen ari zaizkie. Errepresio handia dago. Pablo Grillo argazkilaria, adibidez, hilabete eta piko darama ospitalean, Poliziaren pilotakada jaso ondo-

ren. Diktadura ekartzen dit gogora gertatzen ari denak: politika neoliberalak, kolpeak, errepresioa...

Buenos Aires hiriko hauteskundeak izan ziren maiatzaren 18an eta La Libertad Avanza alderdiko kideak, Manuel Adornik, irabazi zuen. Zer pentsatzen duzu horri buruz?

Buenos Aires hiriko biztanleriaren profila oso jakina da; pentsatu nahi dut herrialdean desberdina izango dela. Hala ere, inoiz egon den abstentziorik altuena izan da eta ez dakit zergatik, agian ez-jakintasunagatik edo etsipenagatik. Hurbileko jende asko oso gaizki dago. Nik uste nuen Macri txarrena zela, baina hau askoz txarragoa da. Egunero harritu egiten gaitu presidentek, mespretxu handia erakusten du eskubideen alde egin den lan guztiarekiko. Presidenteak izugarrikeriak esaten baditu, badirudi edonork esan ditzakeela.

Netflixeko *Eternauta* (2025) telesail

argentinarraren "Lo viejo sirve" (zaharrak balio du) esaldia bere egin dute jubilatuek, eta, esan duzun bezala, gero eta gorputz gehiago ari dira jubilatuekin batera kaleak betetzen. Argitasunik ikusten duzu tunelaz bestalde?

Telesaila oso ondo etorri zaigu, ilusioa piztu du, 1985 pelikularekin gauza bera gertatu zitzaidan. Jendeak gauzak uler ditzake beste leku batetik, fikziotik. Duela gutxi, Ricardo Darín, telesaileko aktore nagusia, telebistara gonbidatu zuten Mirtha Legranden saiora eta inflazioa kritikatu zuenez, orain bere aurka egiten ari dira sareetan. Gubernu honek badaki zelan mugitu sareak. Oso arduratuta nago eta ez dakit norantz goazen, gero eta jende gehiago dagoelako gero eta baliabide gutxiagorekin. Jubilatuekin batera, jende asko ari da kalera ateratzen, baina errepresioak beldur handia ematen du, zaila da kalera ateratzea, bertigoa sentitzen duzu. Oso onak dira erreprimitzen. ●

Oraina
ETORKIZUNA
EKOLOGIKOA DA
aurrera goaz!



Nafarroa, lurralde ekologikoa 2025

Ezagutu ekoizpen ekologikoaren datuak






cpaen.org
navarraecologica.org




UNIÓN EUROPEA
(Fondo Europeo Agrícola de Desarrollo Rural)



Javier Escudero

“Kirol minoritarioetan babesgabetasun ekonomiko handia dago”

Javier Escudero Pascual (Iruñea, 1979) “poz-pozik” dago erretiroa hartuta nahi beste gauza egiteko astia duelako. Nafarroako Aspace kirol klubeko motordun aulkiko futbol taldeko jokalaria da. Duela urtebete sortu zuten taldea, eta hirugarren geratu dira Espainiako Powerchair Football-eko Liga Nazionaleko bigarren mailan. Nabarmendu du “oso esperientzia polita” dela.

 OLAIA L. GARAIALDE

Astelehenero bezala, entrenatzeko prest dira Nafarroako Aspace kirol klubeko motordun aulkiko futbol taldeko jokalaria. Iruñeko Sanduzelai auzoko kiroldegiko joko-zelaiaren atarian daude, jokalekura sartzeko prestatzen. Motordun aulkiko futbolearen aritzeko, burdinazko defentsa bat jartzen dute aulkiaren aitzinean. Defentsa horren bidez baloiaren norabidea zuzendu, eta jaurtiketak egiten dituzte. Zenbait boluntarioren artean aulkiak egokitzen dituztelarik, Javier Escudero Pascual jokalaria taldearen inguruan mintzatzen hasi da.

Modu batean edo bestean, kirola presente egon da Escuderoen bizitzan. Gaztetan saskibaloian jokatzen zuen aulki gurgildunean. Horren ostean, mahai-tenisean hasi zen, eta azkenik, duela urtebete, motordun aulkiko futbolean. Sare sozialetan

“Izugarrizko desoreka sortzen da taldeen artean, ikaragarritzko aldea dagoelako Strike Force aulkietatik beste batzuetara”

aspaldi ezagutzen duen kirol bat den arren, Nafarroako taldea duela urtebete sortu zuten. Euskal Herrian badira beste talde batzuk; adibidez, Handisport, Angelun. “Poliki-poliki gehiago sortzen ari gara. Azpeitian [Gipuzkoa] Kemen kirol klubak beste talde bat sortu du”, esan du.

Espainiako Powerchair Football-eko Liga Nazionalean sei taldek jokatzen dute bigarren mailan eta zazpik lehenengo mailan. Bigarren mailan hirugarren geratu da Nafarroako taldea:

“Lehenengo mailara igotzen dira soilik lehenengo geratzen direnak”. 2024ko maiatzean sortu zuten Nafarroako taldea. Aritz Acevedo Lasheras jokalaria-ri otu zitzaion taldea sortzeko ideia. Iruñekoa da, baina Sevillan ezagutu zuen motordun aulkiko futbola. Etxera itzultzean taldea sortzea erabaki zuen. Horretarako, Nafarroako Aspace elkar-tekoekin harremanetan jarri zen. Aspace garun paralisia duten pertsonen eta haien senideen beharrei erantzuteko asmoz sortutako elkarte da.

“Aritzek jendea gelditzen zuen kaletik taldera sartzeko. Nik Instagrametik idatzi nion”, kontatu du Escudero. Gaineratu du “oso erraza” egin zaiola taldearen parte sentitzea: “Jendea ezagutzeko gogoia baduzu, oso esperientzia polita da. Askok errazten dizkizute gauzak”. Horrez gain, genero eta adin aldetik taldeak mistoak direnez, “oso kirol aberasgarria” dela dio.



ARAUAK ETA OZTOPOAK

Lau lauren kontra jokatzeko da eta arau asko dituzte, baina bat nabarmendu du bereziki Escuderok: "Ezin dira bi jokalaririk bakarrik kontra joan. Oso arau garrantzitsua da". Jokalekuaren dimentsioei dagokionez, saskibaloikoaren antzekoak dira, eta penaltiak "oso gertutik" botatzen dira. Atetik hiru metrora. Abiadura bada kontuan hartu beharreko beste neurri bat; gehienez, 10 km/h abiaduran mugitu daitezke: "Abiadura kontrolatzen dute ezberdintasunik ez egoteko. Beste kontu bat da norberak daukan bizkortasuna". Entrenamenduaren aurretik komentatzen aritu dira bakoitzak zein abiaduratan graduatuta daukan aulkia. Batzuek "ozta-ozta" lortu dute azken partida jokatzeko.

Nafarroako taldeko kideek kalerako erabiltzen dituzten aulkiekin entrenatzen eta lehiatzen dute. Hala ere, badira, kirolerako propio sorturiko aulkia. Horren adibide dira Strike Force aulkia. 12.000

euro edo gehiago kostatzen dute. Escuderok kontaktatu duenez, "gero eta gehiago" dira horrelakoak dituztenak: "Kordobako Udalak adibidez, talderako aulki bat erosi du. Nafarroan oso zaila ikusten dugu hori". Kalerako diren aulkia, futbola praktikatzeko erabiltzean, poliki-poliki higitu egiten dira eta zailagoa da zenbait mugimendu egitea: "Izugarrizko desoreka sortzen da taldeen artean, ikaragarritzko alde dagoelako Strike Force aulkietatik beste batzuetara. Biraketak eta norabide aldaketak askoz arinagoak eta biziagoak dira".

Aulkiena ez da afera bakarra, uste du dirua orokorrean "oztopo handi bat" dela, eta horrek "zailtzen" duela irisgarritasuna kirolean: "Betiko arazoa da. Kirol minoritarioetan babesgabetasun ekonomiko handia dago. Kanpora joan behar badugu, garraioa, erregaia, hotela, janaria eta beste gauza asko ordaintzeko kirol klubetik eta norberaren ekonomiatik tiratu behar dugu". ●



GORPUTZEKO ATAL BAT?

"Begiak, ikusteko gaitasunagatik. Entrenimendurako gaitasunik handiena da. Jendeak agian ez ditu asko baloratzen, baina jendearen begiak eta begirada dira arreta gehien ematen didatena".

GAKOAK ALDIZKARIA



Gakoak eskaintzeko prestaketak

ITSASO ZUBIRIA ETXEBERRIA

Patxadaz irakurtzeko edukiak aldarrikatu eta gero presaka idazteak ez du zentzu handiegirik, ez al duzu uste, irakurle? Azken orduko ukituak aparte, aurrez denbora eta hausnarketa asko eskainitako *Gakoak* jasoko duzu uda honetan (ere). Hilabeteetako prozesu luze baten emaitza izango da, ondo pentsatutako gaien bila denbora pasatzen baita, aldizkari orekatu baten bila, gaiak, pertsonak, formatuak, azala... dena pentsatuta eta edukiak ia prest, abuzturako azken xehetasunak fintzen ari dira ARGIAN.

Aurten emakumeek hainbat arlotan izandako jardunak pisu berezia izango du argitalpenean. Azala bera ere, kirola egiten duten hainbat emakumeren esperientziekin ondutako erreportajeari eman zaio. Baina, horrez gain, musikan eta oholtza-munduan emakumearen

presentzia ari den erreportaje bat ere izango dugu Maria Ortegaren eskutik. Nazioartean Leire Artolak ekarriko digu El Salvadorren kazetari lanetan aritutako Gema Lasarte errenteriarren esperientzia. Danele Sarriugartek, berriz, Miren Egaña hizkuntzalari, irakasle eta etnografoari egindako elkarrizketa sakona prestatu du.

Udako oporrekin pixka bat lotu nahirik, argitalpen honetan jasoko dira, baita ere, naturarekin gozatzeko aukerak, kultur gomendioak, ibilbide tematikoak: hartzaren atzetik Leongo (Espainia) mendietara eramango gaituzte bidaian, Euskal Herriko hainbat "auzo borrokalaritan" barrena murgilduko gaitu Urko Apaolazak, eta munduko hainbat eta hainbat ibairen barrutik ateratako irudi bereziak ekarriko dizkigu Nagore Legarreta argazkilariak. Aurten, gainera, 2021eko *Gakoak* har-


tan bezala, udan girotutako komikia prestatzen ari da Maider Leturiaga.

Historian 1.000 urte atzera eramango gaitu Josu Narbarte *Ipuscua* hitza aitzakia hartuta, orduko euskal lurraldeak eta bertako jendeak nolakoak ziren azaltzeko. Gure historia hurbilagoan, Marijo, Josetxo eta Oihanaren bizitzak ezagutzera emango dizkigu Zigor Olabarriak, hegotik iparreraino gurutzatzen duen erbestea eta tortura mahai gainean jarritz eta familia txiki baten adibidea hartuta, kontatuz, zer gertatu zen.

Xabier Letonak, berriz, Jon Sarasua bertsolari eta irakaslearekin euskararen biziberritzeaz eta arlo sozioekonomikoaz izandako solasaldi mamitsua dakarkigu.

Ni jada abuztuan pentsatzen ari naiz... Zerrenda luze horretatik zer irakurriko dut aurrena? ●

Sodomia zigortua



**NAGORE
IRAZUSTABARRENA
URANGA**

Ascension uhartea, 1725eko maiatzaren 5a. “Holandar ontziteriako komandantearen eta kapitainen aginduz, ni, Leendert Hasenbosch, uharte bakartu honetan lehorreratu naute, nire zorigaitzerako”.

Herbeheretar marinela, 1695ean Hagan jaioa, Ekialdeko Indietako Herbeheretar Konpainiarako ari zen lanean eta, Prattenburg ontzian, jaioterrirako itzulera bidaian, “sodomia” ekintzengatik ezarri zioten zigorra: Afrikako kostaldetik 1.500 kilometrora eta Amerikatik 2.300 kilometrora dagoen uhartean abandonatu zuten; kanpadenda bat, upel bat ur, hazi batzuk eta Bibliaren ale bat utzi zizkioten, baita egunkaria idazteko baliabideak ere.

Egunkari horretan jaso zuen lehen hilabeteen ur freskoa bilatzen saiatu zela eta erreskaterako itxaropenari eutsi ziola. Bakardadeak jota, txori bat domestikatzeko saiatu zen, baina hil egin zitzaion. Tipulak, babarrunak eta ilarrak erein zituen, baina lur idor hark ez zion uzta oparorik emango. Ekainean haluzinazioak izaten hasi zen: “Aspaldi ezagutu nuen gizon baten espiritua nirekin egon da tarte batean”.

Uharteko ur iturri natural bakarra lehortu zenean, asko ahuldu zen Hasenbosch. Gainera ez zuen lortu ahuntzak harrapatzea eta arratoiek uzta eskasa lapurtzen zioten. Hauxe idatzi zuen abuztuaren 22an: “Dortoka handi bat harrapatu nuen eta bere odola edan nuen, litro bat ia”. Aurrerago pixa ere edaten hasi



Marinel abandonatua (1909), Howard Pyle.

zela idatzi zuen. Egunkariko azken sarre-ra 1725eko urriaren 14koa da.

Handik hilabete gutxira, 1726ko urtarilean britainiar ontzi bat iritsi zen Ascension uhartea. Hasenboschen denda eta egunkaria aurkitu zituzten, baina marine-laren arrastorik ez. Egunkariaren ingelesezko lehen bertsioa urte berean argitaratu zuten, *Sodomy Punished* (Sodomia zigortua) izenburupean. Marine-laren benetako izena ezabatu zuten eta, izenburuak argi uzten duenez, homosexualitatearen ondorio larriak erakustea zuen helburu.

1990eko hamarkadan Michiel Koolbergen historialaria gaia ikertzen hasi zen Hasenboschen izena berreskuratu eta errebindikatzeko. Egun, beste historialari herbeheretar batek, Elwin Hofmanek hartu du lekukoa. Hofmanen hi-

tzetan, “XVIII. mendeko lehen urteetan, Herbehereetan, homosexuali ez ikusia-rena egiten zieten edo zuhurki onartzen zituzten. Baina porrot militarren andanak maskulinitate krisi moduko bat eragin zuen, baita homosexualen aurkako prozesu basatiak ere”. Hasenbosch zigortu eta bost urtera Utrechtoko sodomia epaiketak egin zituzten; 300 homosexual epaitu eta gehienak exekutatu zituzten.

Leendert Hasenboch uharte batean abandonatu eta 300 urte geroago, Hofmanek antzeko egoera baten zantzuak antzematen ditu gaur egun ere: “Krisi garaitan, balio tradizionalak babesteko eta maskulinitatea berrezartzen saiatzeko joera dago, eta horretarako queer komunitatea gogorrago zigortzeko arriskua areagotzen da”. ●



THE JORDAN MUSEUM

Qumrameko biribilkiak eta AA

Qumrameko biribilkiek eta Itsaso Hileko Esquibribuek (K.a. III-K.o. I) judaismoaren eta kristautasunaren garapenari buruzko informazio eta interpretazio asko eragin ditu aurkitu zituztenetik. Berriki AA erabiltzen duen Enoch datazio sistemaren bidez, izkribu zaharrenak uste baino ehun urte zaharragoak direla ondorioztatu dute, eta hipotesi

berriak berehala iritsi dira. Izkribuetako batzuk Itun Zaharreko egileek beraiek idatziak izan daitezkeela diote prentsako titular batzuek. Baina ikerlaren emaitza baino erabilitako tresna nabarmendu dute beste batzuek: AAn oinarritutako datazio sistemak Karbono 14 eta beste metodo tradizional batzuk ordezkatuko al dituzte? ●

EKOTALIBANAK



JOSEBE BLANCO ALVAREZ

Ustez lasaiak diren espazioetan ere hau sinatzen duenak jasotakoak dira hurrengoak: *ekotaliban*, *NIMBY*, *bobo*, *kolapsista*, *negazionista*, *ekozekena*, *belarjale*... Denek partekatzen dute eremu semantikoa: ekologismoa. Ekologismoaren baitako zenbait pertsonari edo mugimenduri deitzeko moduak horiek. Zenbaitzuk, kolonialismo energetikoaren kontra borrokan ari direnei aplikatzen zaizkie. *NIMBY* entzuna nuen; berria, *ekotaliban*.

Izendegiak asko esaten du izendatutakoaz, baina baita izen-emaileaz ere.

Ekotaliban. Ez da ausazkoa *eko* erroari *taliban* hitza gehitu izana. Kontzeptuak barnebiltzen dituenak segituan osatzen du izendatuaren profila, eta fundamentalismoari lotuta dago, ezinbestean. Euskaltzaindiaren definizioak dio: *Erligio baten testuen edo doktrina baten arauen interpretazio eta aplikazio hertsia eta zorrotza ren aldeko mugimendua edo doktrina*.

Taliban hitzaren unibertsoa iluna baino ilunagoa da, atzerakoa ematen du. Hotzikara sortzen du inork zu talibantzat hartzeak, egia esan. Min egiten du. Izatekotan, nahiago nuke *ekologista erradikala*, sustraiari aipamena egiten dion heinean. Sustraietara jotzeak esentziara joateko bidea markatzen duelako. Muinean galderak daudelako: zergatik, zertarako, nork, nori, nor... eta galdera-erantzunen jolasean de-

Zailtasun handiena da
elkarrekin modu bat
asmatzea pertsonen
esplotazioan,
estraktibismoan oinarritzen
den eredu produktiboa
sustraietatik eraldatzeko

finitzen baitira bidearen helmuga eta nolakotasuna. Jolas horrek laguntzen dizu koherentziaren utopian urratsak ematen. Horregatik duzu munduan egoteko manera hori; horregatik, onartzen dituzu bizitza posiblea egiten duten mugak.

Zein litzateke, ordea, ekotalibanaren antonimoa? *Axaleko? Buruarin? Axolagabe? Sakona ez dena, azalean dagoena. Pertsonen mintzatuz, burua arina duena, zentzu gutxikoa dena. Gauzez behar den axola edo ardura ez duena; gauzak edo gauza jakin bat axola ez zaizkiona.*

Ez dut neure burua borroka horretan ikusten. Ez naiz ausartzen inor hitzok in izendatzera. Besteak beste, pertsona bakoitzak, gauden krisi egoeran egonda, nahiko lan daukalako bere korapiloak eta ezinak askatzen, bere kontraesanak digeritzen eta bere beldurrak atendi-


tzen. Puntu jakin batean, akaso, helduko da sentitzera kolonialismo energetikoa (ere) dagokionez, kolonialismo horren (ustezko) abantailak jasoko dituela eta kalteak-edo ez daudela edo beste batzuen ortzimugan izango direla.

Komunitate bat dinamika suntsitzailer horretan murgiltzea izugarri arriskutsua iruditzen zait. Arduragabekeria, makinaria hori martxan jartzea helburuak politiko, ekonomiko edo bestelakoak izanik; are gehiago, bizi dugun eta gaituen testuinguruan.

Zailtasunik handiena da elkarrekin modu bat asmatzea pertsonen esplotazioan, estraktibismoan eta jatorrizko lurraldeetatik pertsonen kanporatzean oinarritzen den eredu produktiboa sustraietatik eraldatzeko; inor atzean utzi gabe eta pertsona guztientzat, izan hemen edo han, bizitza desiragarriak eta bizigarriak eraikitzea. Betiere, kontuan izanda hori guztia izango bada, etorriko dela lurrean bizi diren gainontzeko izakiekin batera; elkarren menpekoak gara.

Horregatik, ezin diogu geure buruari tranpa egin, eta diagnostikoa beltzegia atera zaigulako, azukrea bota eta plangintza gozoan oinarrituta eratu. Arazoa ez da teknologikoa; arazoa soziala, kulturala eta fisikoa da, besteak beste.

Nola adierazi sustrairik gabe ez dagoela zuhaitzik? ●



Sareko,
gure elikagai ekologikoen bilatzailea.

ekolurra.eus



Euskadiko Nekazaritza eta
Elkadarura Ekologikokoaren
Kontseilua
Consejo de Agricultura y
Alimentación Ecológica
de Euzkadi

Babesleak:

Euskadi, auzolana



A ZE FAUNA!

ILUNTASUNEAN ARGI, ARGI ETORKIZUNEAN




ENEKO BACHILLER OTAMENDI
ARANZADI ZIENTZIA
ELKARTEKO KIDEA

Lurreko bi heren baino gehiago ura da; ur horretatik %96, ozeanoetako ur gazia. Eguzki izpiak ozeanoetako lehen 200 metroko sakonerara heltzen dira, eta bertan bizi dira munduko arrantza industriak ustiatzen dituen espezie ia guztiak. Aitzitik, zientziak gehiago erreparatu izan die ilargiari nahiz Marteri, sakonera handiagotako eremu ilunari baino, ozeanoen bolumenaren %90 baino gehiago den arren. 200 eta 1.000 metroko sakonera bitartean, “eremu mesopelagikoa” dago, “ilunabar eremu” ere izendatua. Bertan, egunez iluntasuna erabatekoa ez bada ere, fotosintesia ezinezkoa da, eta beraz, ez dago fitoplanktonik; baina bizitza egon, badago, argi dirdirek adierazten duten moduan.

Aipatu eremuan, fotoforo deituriko organismoen esker (bioluminiszentziak) argia sortzeko gaitasuna duten arrain gehienak Miktofidoen familiakoak dira, “ilunabar-arrain” edo “linterna-arrain” modura izendatuak. Argi dirdirak komunikaziorako ezinbesteko dituzte: besteak beste, sardatan elkartzeko, edo ugalketarako.

Ilunabar-arrainek “eguneko migrazio bertikala” burutzen dute: egunean zehar, “eremu batipelagikoan” egon ohi dira, sakonera handiko ur hotzetan (4–7 gradutara), iluntasunaren babesean. Ilunabar-arrarekin batera, ordea, arrainok “eremu epipelagikora” igotzen dira, 100 metroko sakonerara edo ur azaletik are gertuago. Estrategia horri esker, egunean zehar harrapakariengandik urrun daude eta gauez, zooplanktonaren migrazio bertikala jarraituko dute, elikadura-iturri aberats horren bila.



ENEKO BACHILLER OTAMENDI

Benthosema glaciale, ilunabar-arrain espezie ugarietako bat.

ILUNABAR ARRAINA EDO LINTERNA ARRAINA *Myctophidae familia*

TALDEA: Ornoduna/Arraina.

NEURRIA: 10–15 cm.

NON BIZI DA? Mundu osoko eremu mesopelagikoan: 200–1.000 metroko sakoneran egunez, sakonera txikiagoetan gauez (eguneko migrazio bertikala burututa).

ZER JATEN DU? Zooplanktona.

BABES MAILA: Ez dago babestua.

Ezezagunak bezain ugariak, haien biomasa 10.000 milioi tonakoa izan daiteke; sakonera handiko arrain guztien biomasa %65. Datuokin hotz geratu denarentzat, hona hemen beste ikuspuntu bat: munduko biztanle bakoitzeko, 1,3 tona arrain; hamar bider, mundu osoan egun ustiatzen den arrain kopuru totala, edo gehiago. Ezagutza handitu ahala zenbakiok ere gehiago handituko diren ustean –oraindik milioitik gora espezie deskribatzear daudela uste da–, dakigunarekin jada Lurreko ornodun guztien artean hedatuen dauden animaliez ari gara. Bigarren Mundu Gerran garatutako sonarrek nahiko lan izan zuten, itsas hondoa

arrainon igeri-maskurien gasak islatzen zuen geruza mugikorrarekin bereizteko; harrezkero, “hondo faltsu” modura izendatzen da animalioek islatutako geruza. Duten eskala ikusita, ilunabar-arrainek arrantza-ustiapenerako interesa piztu dutela esan beharrik ez dago. Alta, egun ez dago haiei zuzendutako arrantza-araudirik, eta haien ugaritasuna modu fidagarrian zehaztu ezean, zaila izango da haien ustiapenerako kudeaketa jasangarria aurreikustea. Arrainok ozeanoetako elikadura-katean jokatu dezaketen papera, nahiz klimaren erregulaziorako izan dezaketena, uste baino garrantzitsuagoa izan daiteke, elikagai modura izan dezaketen balioa baino handiagoa. Izan ere, eguneko migrazio bertikalean planktonaz elikatzen diren heinean, karbonoa itsas hondora garraiatzen dute; asko. Horrek atmosferaren karbonoaren itsas hondora garraiatzea dakar eta berotegi efektuan CO2ak duen eragina hein batean arintzen du.

Kontu handiz ibili beharko dugu, beraz, arrainok betetzen dituzten funtzio ekologikoak hankaz gora jarri nahi ez baditugu. Ozeano Barean, badaezpada, Ameriketako Estatu Batuek jada hauen arrantza debekatu dute. Baina ikusteko dago, iluntasuna argitzeko gai diren animalioek zaindu eta baloratu beharrean, txikitzeko joerari eusteko gai izango ote garen. Gutxi batzuen irabazien ordainetan, kalteak guztiok ordainduko ditugulako, beti bezala. Kalteak ordea, uste baino larriagoak izan daitezke, ezin baititugu neurtu. ●

GAIZKI HEZITAKO TOMATEA



JAKOBA ERREKONDO
JAKOBA@BIZIBARATZEA.EUS

Ipurdia belztu egiten zaio. Tomate (*Solanum lycopersicum*) alea sano-sano ikusten da, landarean zintzilik, goitik behera begiratzen baitiogü. Buruz behera edo hankaz gora jarritz gero ipurdia beltz-beltz azalduko du. Ipurdian txanpon baten antzeko beltzune boro-bila, oso beltza eta distiratsua, sakonune plano eginez. Tomatezalearen poza errekara.

Gero eta maizago ikusten den arazoa da. Tomate alearen punttan, txortenen beste aldeko punttan sortzen da, ipurdian, eta euskaraz ipurdi beltza esaten zaio.

Azken beltzean, arazo fisiologikoa da, landareak behar duen adina kaltzio ezin ekarri du. Eta kaltziorik gabe garatzen den fruituaren muturra hil egiten da. Piperrari (*Capsicum annuum*) eta kuia-txoari (*Cucurbita pepo* var. *pepo*) ere erasotzen die.

Kaltzio eskasiak arrazoi ugari izan ditzake: lurlean kaltzio gabezia izatea, ongarri desoreka izatea –elementu kimiko batzuen ugaritasunak beste batzuk kateatu eta mugitu ezinik geratzea ekar dezake–, ureztaketa edo eguraldi gora-behera handiek landareari estresa eragitea edo sustraiak kaltetuta edo andeatuta izatea. Zergati bat edo beste, tomate alea, ipurdia belztuta. Era berean, hosto berriak muturretik eta ertzetik ihartu, kiribildu eta itxuragabe haziko dira. Eta tomatezalea, amorrü gorrian.

Negutegian ugariago agertzen da beltzunea. Ongarriketa eta ureztaketa zorrotz baliatzen ez direnean eta gehiegi bezala urri badarabilzkigü edo berotegian eguraldi bero eta lehor zakarregiak baditugu, erraz azal daiteke.

Arazorik ez izateko, tomate landare ondo hezi behar da: ura maizegi ez, baizik eta tarteka emanez, beren kasa lur sakonetan ur bila luzatuko diren sustraiak eman ditzan behartu. Horrela, kaltzioa eta bestelako jaki garrantzitsuak eskuratzeko sustraije hedatuago eta eraginkorragoa izango du. Gaizki



haziz gero, ura behar adina eta maiz emanez gero, landareak ez du sustrairik luzatuko eta ez da jaki bilaketan zailduko. Sustraiak enborraren bueltan geratuko dira, derrigor tutu beltzean barrena etortzen zaien uraren zain. Horrela, faltan izango ditu, kaltzioa ez ezik, burdina, magnesioa, boroa eta beste jakiak ere. Gutxi behar ditu jaki horiek, baina nahitaezkoak dira tomate usaintsu, koloretsu eta dasta onekoa nahi badugu.

Ipurdia belztu zaion tomatea ikusten baduzu, kontuan izan: gehiegi ureztatu eta gaizki hezi da tomatea, ezin izan da behar bezala elikatu eta dasta eskasa izango du; ura, berriz, bai erruz izan du eta handia, lehiaketetara eramateko moduko tamainakoa izango da. Handia, arbiburua baino handiagoa, ur soilez puztua eta, hortzak izerdi, tomate hori ahoratzen duzunean tomatearen ordez arbia bera jaten ari zarela irudituko zai-

zu: zakarra, usainik gabea, dasta murritza, oso motza duena.

Kanpoan, negutegirik gabe tomatea egin nahi duenari beti gomendatzen diot saioa egitea. Baratzean saioak errazak dira, eta azkar ikusten dira ondorioak eskuratzeko emaitzak. Jarri bi sail lur bera, ongarriketa bera eta tratu bera eman zaien tomate landareekin; ureztatu maiz bata eta ureztatu gabe utzi bestea (soilik itsasteko bi antoxinkadak emanda). Gero bateko eta besteko tomateak jan. Eta ahoak haginduko du: ekarri niri ureztatu gabekoak. Ureztatutakoak koinatuari oparituko dizkiogu.

Duela ehun urte, tomatea entsaladan jaten ez zenean, tomate saltsa egiteko aldaerak landatzen ziren, “udare” motakoak, arta-babarrun (*Zea mays* eta *Cucurbita pepo*) soroen bazterretan, gaur kuia jartzen den eran. Eder askoak ziren ureztatu gabeko tomateen saltsa haiek, muxua bezala ipurdi gorriak, noski. ●

KIMUAK

“BIZIRIK DAGOEN LANDAREA DUZU AHOAN GERMINATU BAT JATEAN”



GARAZI ZABALETA

Hamabost urte baino gehiago daramatza martxan Bizkaiko Kimuak germinatuen proiektuak, baina hasierako bultzatzaileak erretiratu dira eta erreleboa hartu berri dute Mikel Landa Luzarragak eta Asier Iñigo Oraindik. Germinatutako kimu freskoak ekoizten dituzte batik bat, baina baita jendeak etxean germinatuak egiteko tresneria eta haziak ere. Marurin egon da orain arte proiektuko lantegia, eta Mungia aldera mugituko dira datozen hilabeteetan.

HAMAR GERMINATU BARIETATE

Zigilu ekologikoarekin ekoizten dituzte germinatuak Luzarragak eta Iñigok. “Astero egiten dugu germinatuen uzta, eta guztira hamar barietate lantzen ditugu”, azaldu du Landak. Dioenez, germinatuak ekoizteko prozesua nahiko sinplea da, baina erabiltzen den haziak berebiziko garrantzia du. “Sektore honetan oso garrantzitsua da hazi on-onak erabiltzea, germinatuetakako bereziak direnak eta germinazio portzentaje handiak dituztenak”, azaldu du.

Baratxuri, albaka, alpapa, berro, brokoli, tipula, fenogreko, ekilore, dilista eta lonbarda germinatuak ekoizten dituzte. Barietatearen arabera, lau eta zortzi egunen artean hazten dira. “Garbitu, paketeak egin eta saltzeko moduan egoten dira denbora tarte txikian”, dio. Etxean germinatuak kristalezko pote txiki batean egin daitezke, baina Kimuak en eskala handiagoan ekoizten dute, eta tresneria berezia dute horretarako. “Metakrilatozko pote handi modukoak ditugu, bi metro kubiko ingurukoak. Hor haziak hormetan itsasten dira eta urarekin lainoztatzen ditugu”, dio. Ekoizpenean hazi ekologikoak eta ura besterik ez dute erabiltzen,



ez gehigarririk ezta kontserbatzailerik ere. Haziak Europako ekoizpen ekologikoetatik eskuratzen dituzte.

EGIN EZAZU ZUK ZEUK

Kimuak en dendan germinatuak ez ezik, norberak etxean ekoizteko haziak eta poteak ere saltzen dituzte. “Hasieran pentsatzen genuen puntualki eta gutxi salduko genituela germinatzaileak, baina jendeak jarraitzen du eskatzen. Azkenean, hain da erraza kimuak ekoiztea, ez da sororik behar... nolabait, barazkiak etxean egiteko aukera ematen dio jendeari, eta gainera, jaten duzun brokoli

edo alpapa hori osorik dago, bizirik dagoen landarea duzu ahoan”, gehitu du.

Salmenta kimuak.eus dendaren bidez eta denda ekologikoekin lanean ari diren banaketa enpresen bidez egiten dute. “Azoka gutxi egiten ditugu, izan ere, bezero nahiko zehatza da gurea eta azoketan saltzea ez da hain erraza”, dio. Germinatuak kontsumitzeko geroz eta ohi-tura handiagoa dagoela sumatzen dute proiektuko kideek, eta han-hemen tailerrak ematen ari dira. “Mungia lantegi berrian bisitentzako eta tailerrentzako txoko bat izanen dugu, alor horretan ere sakontzeko”, amaitu du. ●

Hitz gezidunak

Gaia: *Araba Euskaraz 2025



EGILEA | ANA ZAMBRANO

HERRI ARDU- RALARITZA- REN EUSKAL ERAKUNDEA ----- FESTA		ESERI ----- ARROZA		POTENTZIA UNITATEA		EHUN MOTA ----- HIHAUR		GAIXO ----- ERRESISTEN- TZIA		AFRIKAKO HIZKUNTZA ----- LASTERKA, KORRIKA		ZEZENA PIKAZ ZITZA- TZEN DUEN ZALDUN ----- AKUSATU
				AHO ZABALTZE ----- AZKEN ETA HIRUGARREN BOKALAK								
ARRAUTZAK JARTZEN ----- BERRIZTA- TUAK								UHARTEAK ----- KILOA				
									HERRI NAFARRA ----- JADANIK			
INGELEZKO BAIEZKOA	BI ERROMA- TARRA ----- FRUITUA									... HOC, LATINEZKO LOKUZIOA ----- * LEKUA		
			NAFARROAKO HERRIA, BAZTAN UDALE- RRIKOA						BERTSOLA- RIAREN HUTS ----- ZORIGAITZ			
... ZEDONG, LIDER TXINATARRA ----- DAGO												
		ROENTGEN ----- ZIKIN, LOHI							SEIGARREN MUSIKA NOTA ----- AINTZIRA		ELEKTROIA ----- UTIKAN!	
ITOLARRIA SENTITU ----- * LELOA				GASTEIZKO MUSIKA TALDEA ----- EKAI		DUT (ALDE- RANTZIZ) ----- EMAKU- MEZKO IZENA		KOLORE ----- HORI				PARKE ZOOLOGIKO
								ADIZKI ----- UNIBER- TSITATE ESKOLA				
ARRAZOIA, ZERGATIA ----- SALTOKA					HEZIKETA, HEZKUNTZA ----- POTASIOA							
							GIZONEZKO ZIKIRATU					

Sudoku

BETE ITZAZU GELAXKAK 1ETIK 9RAKO
ZENBAKIAK IDATZIZ, ZUTABE, LERRO ETA 3X3
KOADRO BAKOITZEAN ERREPIKATU GABE.

5				1	6			7
		9	4			3		
			3	7			5	6
		6	1	5	8	9		
8	2				3			
		3	6	4	2		7	
9		8	2	6		5	4	3
						1		
3			5		1		2	9

5x5

ZE HARRETARA ETA GOITIK BEHERA,
HITZ BERA.

1. Zilegi.
2. Joera, zaletasun.
3. Ehiza.
4. Gazitutako haragi.
5. Koipea.

EBAZPENAK

URINA
ZEN
IZI
AIHER
HAIZU
SXS

6	2	7	1	8	5	4	9	3
8	9	1	4	3	6	7	5	2
2	5	4	3	7	2	9	8	6
5	7	7	2	4	4	9	6	1
4	1	9	3	6	7	5	2	8
7	4	6	8	5	1	9	4	3
9	5	2	7	3	8	1	6	4
1	8	3	5	2	4	6	7	9
3	6	9	7	1	8	2	5	4

O	K	U	N	U	E	V	K	I	Z	U	V	I
O	I	Z	V	U	D	E	V	O	I	Z		
Z	I	D	V	E	B	E	G	N	E	T		
U	V	L	T	T	S	O	T	I				
E	V	L						R	V	D		
R	U	L	V	M				O	V	M		
O	T	O	P					S	E	V		
D	V	V	J					I	I			
V	L	V		K	V	U	T	I	R	R	E	B
K	V	L	I	N	E	T	U	R	R	E		
I	S	U	V	R	V	H	V	V	I	V	I	
P	F		E	P	W	J				H		



Nola biziraun etorkizun ezari

UDANE BARINAGARREMENTERIA LAKA AMETS OTEGI ESNAOLA

Etorkizunik Ez" (*No Future*) punk lelo klasikoak duen gaurkotasuna azpimarratu du Enrique Zamoranok *Hijos del Brexit. Nueva escena musical en las Islas Británicas* (Brexitaren seme-alabak. Musika eszena berria Britainiar Uharteetan) lanean. Arlo ekonomiko, sozial, afektibo zein politikoa etorkizunik ikusten ez duen gazteriaren erradiografia dakar Brexitaren osteko ofentsiba neoliberalaren testuinguruan. Bere arabera, esperantzaren ausentziari, Thatcherren garaian bezalatsu, gaur ere aspirazio estetiko eta politikodun erantzun desberdinak eman zaizkio punketik. Hiru multzo bereizten ditu Zamoranok: nihilismoa, probokazioa eta autosuntsipena; kideasuna, komunitatea eta salaketa; eta introspektzioa, norbere baitako munstroei erreparatzea.

Gurean ere, beharrezko distantziak hartuta, antzeko sailkapena egin daitekeelakoan nago. Eta post-punkean bildu daitekeela, nolabait, hirugarren joera hori. Multzo berean sartzeak, ordea, musika-genero hau homogeneizatzera eta,

are, esperientzia eszeniko antzekoak ekar ditzakeela pentsatzera eramán gaitzake. Ekainaren 7an Jimmy Jazzeko oholtzan ikusitakoek erakutsi ziguten ezen, sustrai musikalak eta aspirazio politikoak konpartitzeagatik, proposamen estetiko, emozional eta eszeniko oso desberdinak bil daitezkeela multzo horren baitan.

Izan ere, gauari hasiera eman zion Ezta Ilen hirukoteak, bere lore sorta ustel, arnasestu, laban eta odol, barrurantz tolestera eramán gintuen; eskapismorako musika baita zaldibartarrena, baina baita berrespen irmorako ere. Oraindik berotu gabeko publikoa harrapatzea lortzen duena, norberarena ez den oroitzapen batean sarrarazi eta norberarenak diren frustrazio eta sentsazioetan barrena bidaiatzera. Ordu erdi eskasean aterpetu gintuen atmosfera lanbrotsua sortu zuten, lehen lauzpabost ilaren dantzek erakusten zuten bezala.

Gaueko kartelburu britainiarrak oholtzaratu orduko, gorantz eta kanporantz egin zuen denak: bolumenak,

EZTA ILEN + HIGH VIS

NON: Gasteizko Jimmy Jazz aretoan.

NOIZ: ekainaren 7an.

gorputzek eta entusiasmoak. Ordubete luzeko deskarga fisiko eta soziala izan zen High Visen zuzeneko, larriminarenekanalizazio politikoari bide eman ziona. Espikatzen zaila den erakarpén indarra dauka Graham Sayle abeslariak, hasieratik publikoarekin konexioa lortzea eragiten duena; *stage diving* jauziak, errepikak eta kamiseta bustiak ziren horren adierazgarri. Baita bukatu osteko "latza izan da!" balorazio asebeteeke ere. Taldearen ibilbidea interesgarria da oso aipatutako hiru multzoetan barrera nabigatzeko: lehen diskotik hirugarrenera, autosabotaia (No Sense No Feeling) introspektziara (*Blending*); autokontzientziaren, kideasunaren eta terapiaren bidez, erreparaziara eta komunitatera (*Guided Tour*).

Banda bakoitzak mapa emozional eta konexio-bide bana eskaini zuen, etorkizunaren ausentziari bizirauteko proposamen eszeniko bana. Edonola ere, biek esan zuten, bakoitzak bere erara: hemen jarraitzen dugu. Bakerako prest, eta gerararako gertu. ●

“ ”

Ezin dugu prekaritateaz hitz egin metafora ulertezinekin

Mejillon Tigre

Ane Zubeldiak (Hondarribia, 1994) eta Eider Adeletxek (Pasaia, 1995) osatzen dute Mejillon Tigre kolektiboa. 2016tik 2019ra *Autobiographikal* saioa egin zuten, hainbat emakume poeten lanak biltzen zituen zuzeneko; eta ordutik beste hainbat proiektu ere egin dituzte bakarka. Azken bi urte eta erdian *Hitz Esana* emanaldia eskaini dute herriz herri, eta azken saioa egin zuten maiatzaren 31n, Hendaiko Borderline Fabrikan. Euskarara ekarri dute ingelesezko *spoken word* terminoa, eta zuzenekoetarako eta oholtzarako idatzitako poesia landu dute elkarrekin. Bidean ezaguturiko lagunak ere izan dituzte alboan.

 LARRAITZ FAGUNDEZ OSA  DANI BLANCO / ARGIA CC-BY-SA

Sarea gero eta handiagoa da? Gero eta jende gehiago ari da hitz esana edo antzeko ereduak probatzen?

Zubeldia: Ez dakit orain gehiago dauden, edo orain gehiago ezagutzen ditugun; baina baietz esango nuke. Diziplina bezala identifikatu da, eta bereizi da poesia eredu klasikotik. Giroan ikusten da: erreztaldi klasikoetatik urruntzen diren ereduak ari dira nagusitzen. Programataileek ere interesa erakutsi dute.

Adeletx: Monologoek ere hartu dute indarra azkenaldian. Hitz esanarekin, eta oro har, gorputza gehiago agertzearekin beste espazio bat sortu da. Poesiaren munduan hor nonbait baze goen erreztatze edo komunikatzeko molde bat, eta hori erabili dugu gure

erara, ahotsa eta gorputzari garrantzia handia emanda.

Ez zarete agian lehenak euskaraz hitz esana egiten, baina izen hori zeuek jarri diozue. Zer da?

Zubeldia: Batzuetan sentitzen genuen poesia emanaldiak ez zitzaizkigula nahi beste iristen, gu oso poesia zale izanda ere. Horrekin ez dugu esan nahi besteek egindakoa gaizki zegoenik, baina bai iruditzen zitzaigun komunikatzeko gaitasuna falta zela. Eta hitz esanak hori du. Jatorriz *spoken word* da; esana izateko eginga den poesia molde bat, zuzeneko-rako. Deklamazioak, esateko moduek, errimak eta gorputzak hartzen dute garrantzia handiagoa.

Adeletx: Baita gaiek ere. Soziopolitikoak dira normalean. Aurretik poesia egiten genuen, bere esanahirik ohikoenean, eta errezeloa genuen zerbait ez ginela guztiz kokatzen ari. *Proesia* hitza erabiltzen genuen, prosatik zuelako... Gure buruari galdetzen hasi ginen zer egin nahi genuen, agian ez zelako liburuetan gertatzen egin nahi genuen poesia molde. Ikertzen hasi ginen eta *spoken word*-a ezagutu genuen. Eta hori zen: horrela errezzatu nahi genuen, eredu horrek eskaintzen dituen baliabideekin. Hitz euskarara ekarri genuen eta eroso sentitzen ginen hori egiten genuela esaten. Emanaldi honekin lortu dugun gure lekua topatzea gure sortzeko moduetan.

Testu edo hitz idatzietatik abiatzen zarete poemak sortzeko, edo ahozkotik?

Adeletx: Sortzen dugunean, hitzean baino gehiago, ahozkotasunean pentsatzen dugu. Gidoigintzara eta bakarrizketara jotzen dudala esango nuke. Jende aurrean foku bat izango banu, esan nahi dudana nola esango nukeen pentsatzen dut.

Zubeldia: Hainbat diziplinatan ari gara, eta ikasi dugu identifikatzen zer gai joan behar den hitz esanean eta zer izan behar den beste mota bateko zerbait, poema edo ipuin bat. Hitz esanak bitartekari lana egiteko aukera ematen dizu.

Zer dauka eszenikotik? Zer garrantzia dute hitzek, eta zer gorputzak?

Zubeldia: Garrantzi handia daukana

da nork hitz egiten duen. Guk argi izan dugu, adibidez, ez genuela hitz egingo lehenengo pertsonan potentzialki gure gorputzei gertatu ezin zitzaizkien gauzez. Hau da, ez genuela gorputzuko, adibidez, pertsona migratzaile bat. Halakoei buruzkoak egin nahi izan ditugunean, jaialdiren batean eskatu digutela, beste poeta batzuen testuak itzuli ditugu, eta hala egiten ari garela azaldu. Hori ere bada gorputzea. Poesia erreztaldi ohikoagoetan ere gorputz bat dago erreztatzen, baina nire sententzia da askotan ahaztu egiten dela gorputza hor dagoela eta gorputz hori ari dela gauzak esaten, ez beste bat.

Adeletx: Erreztatzaileak gidari lana egiten du: ahotsa erabili, bolumena igo, jaitsi, pertsona bati zuzenean begira-

tu, gorputz oldarkorra edo zaurgarria jarri... Hori hitzaren osagarria da; oso potentea den zerbait gehitzen dio. Ironia paperean ez da agertzen, adibidez, ez bada oso esplizitua. Ahotsak eta gorputzak poesia gorputzen dute, eta guztiz transformatu dezakete.

Zubeldia: Are gehiago, testuak eraldatzen joan dira, eta egunaren arabera

“ ”

*Hizkuntza hedatzen
dugun heinean
bete-betean dagokigu
posizio bat hartzea*



edo gure aldaratearen arabera testu bera ezberdin bihurtu daiteke. Gorputza ez dago egunero berdin, eta hori horrela da, guk nahi gabe ere.

Zuzenekoaz gain, bat-batekoa ere bada orduan, neurri batean.

Zubeldia: Bai. Testuak moldatzen ditugu lekuaren arabera, edo pertsona batek ez dakit zer egin duelako, edo telefono batek jo...

Adeletx: Espazioak ere eragiten du. Jai giroak, adibidez, ez dira erosoak normalean, poesiak arreta behar duelako. Ez gara animatzaile soziokulturalak. Gure hitzek grazia edo negargura eragin arren, kontzentrazioa eskatzen du. Baina jai batzuetan oso giro berezia sortu da. Sortzen denaren parte bat bat-batekoa da, efimeroa.

Autobiographikal-etik Hitz Esan-era, soiltasunera jo duzue, entzuleen arreta zuenganatzeko elementu gutxiago erabiltzera. Ikasketa prozesuaren parte izan da?

Adeletx: Ez dugu inoren arreta geureganatu behar. Hitz nahikoa da, hitz soila. Eta gero gorputza, noski. Errebelazio bat izan zen. Gaur egun su artifizialetengabeak sustatzen dira, eta testuinguru horretan aldarrikapena ere bada “entzun” esatea. Entzun eta ikusi hasieratik bukaerara. Eta listo, hori da dena. Horren sinplea dirudi, horren zaila da batzuetan.

Zubeldia: Hor ere bilatu dugu oreka. Ez dugu egin nahi ulertuko ez den poemarik, baina entzuleak adi egon behar du ulertzeko. Ezin da dena etengabe murtzikatua eman, ezin da etengabe pop kanta bat egin. Soiltzera ere egin dugu. Hasieran klake zapatak, gitarra, antzerkia... Gero konturatu ginen poemek ez zutela hori behar, eta ikusleak eskertu egiten du adi egoteko ahalegina egin izana. Ezin dugu saiatu ikus-entzunezkoek bezala arreta geureganatzen, beste zerbait delako. Oholtza gaineko literaturak edo eszenikoek orokorrean, gaur egun, eskaini dezaketena denbora tarte bat da ikus-entzunezkoetatik urrun.

Spoken word-ean gai sozial eta politikoak erabili ohi direla esan duzue. Zuentzako gai mota hori jorratzea hautua dela esango zenukete?

Adeletx: Ezinegonak aurretik zeuden, eta hortik abiatuta gai zerrenda egin genuen.



Zubeldia: Gai batzuek asko sutzen gaituzte, baina ez zuten balio idatzizko poema formal baterako. Astunegi geratzen zen, edo *panfletoegi*. Ez gaude *panfletarismoaren* kontra, baina momentu jakin batzuetarako dira; desberdinak dira manifestazio baten bukaerako testua, edo iritzi zutabe batekoa, album ilustratu, poema liburu batekoa... Bakoitzak bere estiloa eta funtzioa ditu. Guk gai horiei buruz hitz egin nahi genuen jendeari iristeko modu batean, konektatzeko. Etxebizitzari buruzko poeman, adibidez, *akumulazio* hitza erabili dugu, eta funtzionatzen du beste era batera esateko nazkatuta gaudela etxebizitzaren prezioarekin eta egoerarekin. Esplizituki nazkatuta gaudela esateak baino hobeto funtzionatzen du, hori horrela beste toki batzuetan esaten delako, eta esan behar delako. Baina horrelako emanaldi batean beste era batera esan behar da, helburu berdinarekin.

Poemek komunikatzeko gaitasuna izan behar dutela esan duzue. Nola hitz egin gai politikoez eta konplexuez modu zuzenean, literaturatik?

“ ” Ezin da dena etengabe murtxikatua eman, ezin da etengabe pop kanta bat egin

Zubeldia: Umorea izan da tresna nagusia. Elementu arruntak, komunak, edo jende gehienak bizi dituenak hartu ditugu askotan. Adibidez, Ikeako mahai bat. Nork ez du Ikeako mahai bat etxean? Eta nork ez luke nahiago gereziendozkoa, baina ezin du erosi? Gure artean edo lagunekin izandako elkarriketetatik ere atera dira poema asko, informaltasunetik eta ahozkotik. Zerbait idatzi dugunerako, askotan, gure arteko bromak izan dira lehenago. Eta beste plano batean, ikusleak ematen die konplexutasuna bere bizipenetatik gauza sinpleei. Onena da jendea etorri denean emanaldi ostean esatera hitzak jarri dizkiogula aspalditik izan duen sentsazio bati, edo nola esan ez zekien zerbaiti.

Adeletx: Emanaldiko testuak, zehazki, landuta daude gaiei zeharka edo ezohiko bideetatik heltzeko. Nola esan zerbait umeen sexu abusuez, heteronormaz, turismoaz edo etorkizunaz, eta entzulearen eragin ukigarria izan? Guretzako beste nonbaitetik iristen asmatzea da magia, jolasa eta efektua sortzea dira gure helburua, eta ez horrenbeste panfletoa edo diskurtsoa. Sentsazioak, uneak, irudiak eta katarsiak bilatzen ditugu. Hala ere, zuzenak ere bagara hizketan. Ezin dugu prekarietateaz hitz egin metafora ulertezinekin, prekarietatea salatu nahi badugu. Mezu edo sentsazio irisgarriak bilatzen ditugu, eta ondorioz hizkuntza ere bai, ahozkotasunetik eta entzulearen ulermenetik gertu kokatzen dugu. Eta gorputzak eta espresio molde horrek asko laguntzen du edukia edo emozioa irisgarri egiten. Edonola ere, ahozkotasuna aipatu dugula, kasu guztietan hizkuntzarekiko arduraz egin behar dela uste dut. Ez gaude, adibidez, *euskañola* arduragabekiaz erabiltzearen alde. Sinisten dugu malgutasunean, ahozkotasunera hurbildu behar garela, hitz ulertezinetan gelditu gabe. Baina hizkuntza zabaldu nahi badugu idazketan, errespetua zor diogu.

Arduraz jokatu behar dela uste duzue? Hizkuntza komunikagarria egin eta ahozktasunera hurbildu nahi izateak, badirudi, gure egoera soziolinguistikoa gaztelaniaz egiteko joera dakarrela.

Adeletx: Zaila egin zait muga horretan ibiltzea, eta sufritu ere egin dut horrekin momentu batzuetan. Badakit nire erreferenteek, eta ez soilik erreferente kulturalak, nola transmititu diguten hizkuntza, nola ireki dituzten bide berriak eta nolako ahalegina egin duten irisgarri egiteko. Gaur eguneko idazle edo abeslari askok ere bai. Guk ere nahi dugu hizkuntza modu apurtzailean erabili, eta ahozktasunera hurbiltzen, termino berrietan igeri egiten, gaztelaniara jotzeko arriskua hor daukagu. Gure emanaldietan ere egin ditugu halako gauzak: gaztelania erabiltzea grazia egin nahi izateko, adibidez. Gero, kanpotik ikusita... Horrek ez gaitu konbentzitzen. Saiakerak egin ditugu hizkuntzarekin, hizkeren laborategi bizi bat da ahozktasunetik idaztearena. Batzuetan gustura gaude atera denarekin, beste batzuetan ez, eta horrela ikasi dugu. Hanka sartu daiteke bidean, baina kontua da egiten ditugun saiakeretan euskararekiko ardura dagoen edo ez. Auzi hau oso garrantzitsua da, zeren joera ez dago oso argi gaur egungo proposamen kulturaletan, eta kultura gizartearen isla da. Ni, pertsonalki, oso arduratuta nago eta atera beharreko gaia iruditzen zait. Hizkuntza hedatzen dugun heinean bete-betean dagokigu posizio bat hartzea. Kontua da "horrela hitz egiten dut" esatea ez dela nahikoa; kontua da zer egingo duzun "horrela hitz egiten dut" eta "zer eta nola esan edo eman nahi dut" horien artean.

Irratian ere aritu zarete, eta horrek proiektzioa du sare sozialetan, bideo labor forman. Nolako poesiak funtzionatzen du sare sozialetan?

Zubeldia: Errazkeriek, eguneroko bizitzak eta gai oso emozionalak.

Adeletx: Jendeak entzun nahi duena esateak. Deserosoa ez denak. *Ni-tik gu-ra* idazten dugu normalean, esperientzia pertsonaletik *gu-ra* zuzenduta. Baina *gu* asko daude. Gauza batzuk sinpleki jende gehiagok bizi izan ditu; adibidez, aitona-amonei buruz hitz egiten baduzu jende gehiagori iritsiko zaio. Irratira horrelako gaiekin joan behar duzu. Beste gauza bat: lehen 30 segundoetan esaten duzun horretan *clickbait*-a ez badago, jendeak ez du ikusten. Ez dugu *clickbait*-



“ ”

**Gure buruari galdetzen
hasi ginen zer egin
nahi genuen, agian
ez zelako liburuetan
gertatzen egin nahi
genuen poesia moldea**

ik egin nahi, baina konturatu gara hasieran deklamazio modukorik ez badago, gantxorik ez badago, bideoa pasa egiten dela. Batzuetan gure politikaren aurkako gauzak egiten ikusi dugu gure burua. **Zubeldia:** Argi ikusi dut poema batzuek, nire gustukoagoak, bigarren edo hirugarren kapa bat zutenak, ez dutela

sareetan horren ondo funtzionatu. Konplexutasun maila igotzeak zuzenekoan funtzionatzen du, baina sareetan ematen du ezetz. Iritzia emateari dagokionez, sare sozialetan zaila egiten zaigu polarizazio sinpleak ekiditea eta konplexutasuna ematea gaiei.

Adeletx: Egon daitezkeen esperientzia eta iritzien artean bat da gurea, bizipen propio bat. Ez dugu ezer absoluturik esan nahi. Poesiak hori biltzeko balio du. Bideoek badute alde on bat: jende askori iritsi zaizkio batzuk, baita inoiz poesia iritsi ez zaion jende bati ere; esaterako, erdaraz egiten duten herriko gazteek bidali dizkidate. Baina, bestalde, konturatu gara beti ez dugula zerbait esateko. Irratiaren erritmoan, astero edo bi astean behin ezin da esateko zerbait izan, eta gainera modu honetan landua. Eta esateagatik esateko, agian hobeto atsedena hartu. Jakin behar da isiltzen. ●

Ikusi →

Duela urtebete, Amillubiren festa egun batean, ARGIAk Mejillon Tigre kolektiboaren saioa filmatu zuen. Egileek hala eskatuta, artxiboa gordeta eduki du ARGIAk, eta orain, berriz ere haiekin hitz egin da, printzipioz emanaldi gehiago egingo ez dituztelako, bideo hura argitaratzea erabaki da.



labur.eus/pkafminp



LIBURUA

Oraindik gara mitiko



ANTZINAKO BERRI-BERRIAK

KAE TEMPEST

IGELA, 2022

BESTIAK LIBURUTEGIA

This poem was written to read aloud / Poema hau ozen irakurtzeko idatzi zen.


Horrela hasten da Kae Tempesten *Antzinako berri-berriak* liburua, lehen lerrotik iradokiz euskarri eta genero arteko bidegurutzean dagoela esku artean dugun lana. Aldi berean da ahozko eta idatzizko, poesia eta narrazio, epopeia klasiko eta kontakizun garaikide. Izaera berritzaile horrek poesiaren eta hitz esanaren bazterrak astindu zituen 2012an. Hamar urte geroago argitaratu zuen Igela argitaletxeak Itziar Diez de Ultzurrunen itzulitako bertsio elebidun hau. Ezker-eskuin, ingelesez eta euskaraz, 123 orrialdetan barna egiten du aurrera poema bakarrak. Etenik, atalik edo kapitulurik gabe, lerroz

eta estrofaz ehuntzen du Tempestek istorio oso bat.

Bertan ezagutuko ditugu Londres hegoaldeko Tommy, Gloria eta Clyde. Ikusiko ditugu hiriaren tripetan hazten eta borrokatzen, gizatiar bezain jainkozko. Mito garaikide bihurtuta agertuko baitira, beren anonimotasunean aparteko, egunerokotasunean epiko. Mitoek gudan dirautela gogorarazten digu Tempestek; Antzinako Greziako jainko gizatiarren bitartez gure burua begiratu dezakegula xamur, gupidaz. Mitoek laguntzen digutelako mundua jasaten, eta aspaldi ahaztu genuelako beren efektu baltsamikoa. Lasaigarri dira, liburuan zehar behin eta berriro irakurtzen den errepika zoragarria lez: “*Hortxe dau-*

de jainkoak apustu etxeetan / hortxe daude jainkoak kafetegietan / hortxe daude jainkoak erretzen atzealdeetan / hortxe daude jainkoak bulegoetan / hortxe daude jainkoak idazmahaietan / hortxe daude jainkoak nazkatuak: asko eman, eta gutxi jaso trukean”.

Testuak gure begirada gidatuko du eskuko kamera bati jarraiki balego bezala. Eramango gaitu protagonisten bizitzetako xehetasun txikienetik plano orokorreko hausnarketa sozialetara. Eta gonbidatuko gaitu fokua desplazatzera, epika asmo handikoa alde batera uztera eta aldameneko heroiei arreta jartzera. Gure inguruan ere badirelako Ulises, Afrodita eta Hefesto. Gu geu ere oraindik bagarelako mitiko. Gu, hezur eta haragizko, jainkozko, egundoko. ●



MUSIKA

Miruenea, salda badago



MIRUENEA MIRUA

OSO POLITA, 2025

XALBA RAMIREZ

Bi urtez egon dira lanean Mirukoak “inoiz egin duten proiektu garrantzitsuen” aurkezteko: *Miruenea*. Eta, egia da, gaur egun artista guztiek dioten arren “inoizko ez-dakit-zer ez-dakit-zerrena”, lan honek badu sakonek asko eta asko.

Euskal musika tradizionala eta elektronika uztartzeko bilaketa jorratzen ari dira talde asko azken urteotan, eta Mirukoek erronka horri heldu diote, baina ez etiketa ikuspegitik. Esan nahi dut, ez dutela egin merkatu nitxo bila, baizik eta espresio bide batean, ulertzeko ea gure tradizio aberatsak zer beste hizkuntza eskaini ditzakeen. Laboaren edo Martikorenaren bertsio elektro-popak egin ordez, trikipoparen iturritik hartu dute material gehiena. Hori, gehi euskal poparen inguruko begi keinuz

osatatuko iruditeria bat; tradizio-pop mobida bat da, C. Tanganak egin ildoan.

Eta bestelako erreferentziak? Ez dakit, baina itxura du Ralphie Choo, Rosalia, Bon Iver, Kanye West, James Blake eta nik-zer-dakit-zenbat zientoka artista garaikideren ukituak topatu daitezkeela. Alegia: kristoren ekoizpena du kanta bakoitzak. Baina kristorena. Euskarak horrelako lanik ez du orain arte eman eta hori ospatzekoa da. Bestalde, onartu beharra dut, konpas bakoitzean elementu berri bat gehitzeko irizpide komertzial honek apur bat gehiegi betetzen nauela. Diskoaren momentu onena, akaso, Maddi Oihenarten intro eder hori da, lasai apur bat ematen duelako, besteak beste.

Aurreko lanaren inguruan aipatzen nuen esatekoak etorriko zitzaizkiela.

Niretzat hor jarraitzen du lan honen puntu ahulak —horrela, punta ateratzeagatik, e—. Iragan galduaren nostalgia eta iraganik ez duen belaunaldi baten gogoeta horiek, apur bat kluxe bihurtu ez ote direnaren beldur. Horren galduta al dago euskal gazteria? Nik uste gai dela nostalgiaren mamua gainetik kendu eta etorkizun desiragarri bat eraikitzekoa.

Zorionez, denak ez dira *intensadak* eta umore puntu hori eskertzen da. *Zazpiak bat*-en trikiheterojurru txin-txo *type of beat*-a asmatu dute. Hori, jada, bada diskoa entzuteko arrazoi on bat. Eta, esango nuke, garai bat islatzen duen disko bat izan daitekeela, etorkizuneko etnografoek eskertuko duten lana. Eta dantzazaleek ere bai, espero dut. ●

Ustelduak bai, baina nor dira usteltzaileak?

 GORKA BEREZIARTUA MITXELENA

Ez dakit Miguel Indurainez geroztik izan ote den nafarren bat Espainietan hain azkar famatu dena. A, ostia, itxoin, bai: Gran Hermano irabazi zuen hura, Sofia Sueskun. Baina klaro, bi kasu horietan ikuskitzunaren munduko karrera meteorikoez ari gara. Meteorito baten antz handiagoa dauka, aldiz, gaurko artikulua protagonistazera gonbidatu dugun [erregidoreak txaloak eskatzen ditu] Santos Cerdanek: “Aiba! Aiba! Aiba!” oso nafar batzuez lagunduta [barre enlatatuak], Moncloa bete-betean jo du Milagroko politikariaren ustelkeria kasuak; puska batzuk Iruñera ere iritsi dira Belaten barrera; Maria Chivite malkotan [musika dramatikoak], soka noraino iritsiko den ikusteke, eskuin espainiarreko tertzio guztiak trabukoan perdigioak sartu eta sartu. Enfin, tamaina estandarreko behikaka bat intentzio handiz sabaiko haizagailura jaurtita lortzen den emaitza bera ari da uzten asuntua.

Hitzezkoa ez den hizkerari erreparatzen badiogu, alegia, Pedro Sanchezen

aurpegiko giharren tentsioari, badirudi benetan ezustean harrapatu duela kontuak. Ez zuela espero Cerdan bezalako norbait, PSOEren gaur egungo kupularen konfiantza osoko iturgina, horrelako txandrio batean nahasita egongo zenik. Ez baitzen saltsa berean ipurtzularaino sartuta dagoen Jose Luis Abalos ministro ohia bezalakoa: hura sarritan kexatzen omen zen bere soldataz eta izendatzen zituen kargu publiko askok, ardura gutxiago eduki arren, berak baino nomina altuagoa zeukatelako. Herren hori daukan edozeinentzat da tentagarria milioika euroko kontratu publikoetatik atximurren bat hartzeko aukera.

Diskretuagoa Cerdan. Publikatu diren elkarrizketa batzuen transkripzioetan ere ikusten da. Tramari izena eman dion Koldo Garcia barakaldarrarekin ari dela -pieza ederrak esportatzen ditugu alajaina: Guardia Zibilaren kolaboratzaile izandakoa, Nicolas Redondo Terrerosen bizkartzain ohia, lesio delituengatik bitan kondenatua...-, askotan exijitzen dio Cerdanek komisio-kontuak telefonoz ez

aipatzeko, gauza horiek aurrez aurre, paper batean idatzi eta gero puskatu. *Baron noir* estiloko telesail baten bizpahiru denboralditarako materiala badaukagu orain arte atera denarekin. Eta itxoin ze, hau hasi besterik ez da egin.

Baina egia esatea nahi baduzue, horrelako *thriller*-ez seko aspertuta nago dagoeneko. Eta baditut nire arrazoiak. Ea ba: ustelkeria kasu guztietan bi osagai nagusi daude. Ustelduak, batetik; usteltzaileak, bestetik. Eta normalean eza gutzen duguna, medioetan aspertu arte agertzen dena, detaile ñimiñoeneraino aletzen dena, ustelduen parteia izaten da. Politikari diruzaleak, ibilera txungo samarreko bitartekariak, kobratutako diruarekin ordaindutako putetxeko gastuak, tar, tar, tar. Usteltzaileak berriz, alegia, assskoz diru gehiago irabazteko politikari bati sos batzuk purra-purra bota dizkioten enpresariak, zeharka baino ez ditu ukitzen espantu orokorrak.

Santos Cerdan, Koldo Garcia edo Jose Luis Abalosi buruz datozen asteetan publikatuko den lerro bakoitzagatik argitaratuko balira informazio hain detailatuak kasu honetako usteltzaile nagusia den Acciona enpresako Entrecanales familiak, agian ulertuko genuke ustelkeria ez dela tartean behin eskua gaileten kaxan sartzen duten politikari inmoral batzuen problema bakarrik, gobernatzeko modu bat baizik. Gobernatzeko modu bat, zeinean kosta ahala kosta lortu behar den esku pribatu oso jakin batzuen artean banatzea mozkin publiko guztia. Hala zen Francoren erregimenean -Accionaren aurrekariak preso politikoak obretarako esklabo gisa ere erabili zituzten-, eta hala jarraitu du 1978 osteko erregimenean ere, urtetan lizitazio publikoak nahieran manipulatu.

Business as unusual da Accionaren eslogana. Tamaina horretakoak dauzkate garabiak. ●



Zure datuak besteen esku... noiz arte?

Zure erakundearen informazioa **hodei propiora** migratzeko momentua iritsi da



Nextcloud

Ezagutu Nextcloud bulego birtuala, alternatiba segurua eta burujabea



Fitxategiak, posta, egutegia, bideo-deiak...



Euskarazko tresna pertsonalizatua



Segurtasuna eta datuen gaineko kontrola



%50eko finantzazioa
KLOUD diru-laguntza

nextcloud.eus

Bizi Baratzea

Orria

Lurrari begiratzen diogunon



Naturzaleek eta landarezainek badugu orain
paperean eta euskaraz urtaroko bakoitzean jasoko
dugun aldizkari berezi bat

**Formatu
berezia**

Tolesturak
zabalduta poster
handi batera
helduko gara



Orain arrazoi bat gehiago dugu
ARGIA ekonomikoki bultzatzeko.
Guztion artean lanean jarraituko dugu,
Lurrari euskaraz begiratzen
eta entzuten diogunok,
geroz eta gehiago izan gaitezen.



Batu mundua bizigarri eta eguneroko bizitza
gozagarri egiten dutenen komunitatera:

eginbizibaratzea.eus

Nahi duzuna jaso, nahi duzuna ordaindu